

Arrasate

P R E S S

2000.eko
urriaren 27a
514. zenb.

Azaroaren lehena

Ez daudenak gogoratzeko eta
hilerriak lorez jazteko eguna

IKUSPEGIA: KARMELE PEREZ • EUREN IKUSPUNTUTIK: JAIONE GUEZMES
KIROLA: SAN ANDRES XAKE TALDEA • KULTURA ELKARRIZKETA: VERONICA RIOS

San Felipe Apostol

Etekinak lortzeko asmorik ez du eta Eusko Jaurlaritzako Gizarte Segurantzza eta Lan Saileko Gizarte Segurantzza Zuzendaritzan izena emandako elkarte da.



Gaur egungo Zuzendaritza Batzordearen zenbait kide: Jose Ignacio Elortza (idazkaria), Juan Luis Untzueta (diruzaina), Jesus Mari Arizmendiarieta (lehendakaria), Kontxi Bedia, Alberto Ojanguren (maiorala), Valentin Ojanguren, Jose Juan Iria, Maximino Perez, Juan Ramon Mendieta, Agustin Aranburu.

Eratze eguna: 1898.eko apirilaren 13a.

Bazkide kopurua: 11.850

Sarrerako ordain sariak

40 urte baino gutxiagokoak	Sarrera dohainik
41-50	12.000 pta.
46-50	20.000 pta.
51-55	30.000 pta.
56-60	45.000 pta.
61-65	65.000 pta.
66-70	90.000 pta.
70 urtetik gorakoak.	125.000 pta.

Oharra: Kuota hauek 40 urtetik gorako guztiengan dute eragina, nahiz eta titularrak, ezkontideak edota onuradunak izan.

Urteroko ordain sariak

Titularrak	2.500 pta.
Ezkontideak	1.600 pta.
Onuradunak	1.000 pta.

Eskaintako zerbitzuak

Hildako bazkidearen familiari gastu hauetan lagunduko diogu:

- Euskal Autonomia Erkidegoan edo Nafarroan egin beharreko lekualdaketak.
- Hilkutxa.
- Herriari zehar eskelak jartzea.
- Hildakoak jazteko lanak.
- Auzitegian egin beharrekoak. Medikuziurtagiria.
- 50.000 pezetako diru laguntza hildako bakoitzagatik.
- Heriotza EAetik edo Nafarroatik kanpo gertatzean, 600.000 pezetarainoko gastuak ordainduko dira, beti ere, ondorengo baldintzak betetzen badira.
 - Egindako gastuen frogagiriak ekartzea behar-beharrezkoa izango da eta frogagiri hauek faktura ofizialen orijinalak izatea eskatuko da.
 - Erabilitako zerbitzuak (hilkutxa...) San Felipe Apostol Elkarteak eskaintzen dituen antzekoak izan beharko dira.

Bazkide batek San Felipe Apostol Elkarteak eskaintzen dituen zerbitzuei uko egin eta beste ehorztetxe batengana jotzea erabakiko balu, 85.000 pezetako uko bat eskatzeko eskubidea izango du.

Agur eta ohore

Esperientzia pertsonalak eta besterenak bata besteren atzetik etorri dira azken sei urte eta erdian. Direla herriko kultur ekintzak, direla oposaketak, bidaietako esperientzia aberasgarriak, euskararen pozak eta penak, ajeak eta bertuteak, komunikazioa eta inkomunikazioa, mundu hobeen itxaropena eta errealitate askoren desesperantza, utopiak eta errealitate gordinak, sasoi aldaketak eta balantzeak, mitoak eta polemikak, sinismenak eta herrien arimak, tradizioa eta modernitatea, intimismoa eta probokazioa, ohiturak eta gerrak, injustiziak eta ezberdintasun sozialak, lehena eta etorkizuna... Hamaika gai eta milaka hitz Arrasateko etxeetara zuzen. Arrasateko etxeetara eta mugetatik beste aldeetara ere bai; izan ere, pentsa nolako ezustekoa izan daitekeen



Karmeletxe Perez

Zin dagizuet, nire bihotzaren atal bat izan dela zuekin artikulu bakoitzean

Argentinatik eskutitz bat jasotzea, artikulu bat irakurri eta bertako gaiari buruzko informazio gehiago eskatze-ko. Mundiala!!

Egia esan 1994ko martxoaren 14an, lehen artikulua atera zen hartan, ez nuen asko sumatzen etapa honek hainbeste iraungo zuenik. Gauza batzuek, hasten direnean, ez baitute etorkizunik aurreikusten, ezta norberak eginkizun berriei ekiten dienean ere.

Harrezkero, hamaika haserrealdi, makina bat zorion eta hainbat atsekabe isuri ditut orriotan, batzuetan egoki, bestetan erdipurdi, gehienetan azken momentuan, baina beti ilusioz; izan ere, orriok aitzakia bikaina izan dira beti, idaztera bultzatzeko. Esperientziak diosku, gehienoi behintzat, gure burua gauzak egitera behartzen

ez badugu erabat nagituko zaigula. Ni, zalantzarik gabe, multzo horretakoa naiz, eta lan honek adi eduki nau, idazteko eta sortzeko aukera eman dit, gizarte zati batek pentsatzen duenaren bozeramaile izaten utzi dit... Hórregatik guztiagatik, eskerrak *Press*-i eta eskerrak arrasatearroi, eman didazuen aukerarengatik eta sarri jaso ditudan animoengatik.

Zin dagizuet, nire bihotzaren atal bat izan dela zuekin artikulu bakoitzean; izan ere, ezin uka daiteke norberaren hitzak norberaren bizipenen agerpena direnik neurri handi batean, nola bizi, hala adierazten baititugu. Hortaz, aitortzen dut azken urteotako nire gozo eta saminak jaso dituzuela, emanaldika.

Gaur, zazpi urte zaharragoa izanik, etapa hori itxi eta beste bat hasteko garaia dudala uste dut. Balantze eta agurren momentuan nago, bada. Beste norbaiti egokitu zaio hemendik aurrera *Press*-en etapa hasi eta gure etxeetan sartzea. Animoak ugari eta ongietorri beroena berari.

Etá arrasatearroi, agur eta ohore!!!

“Gero eta gehiago kontsumitzera bultzatzeko dago diseinatua gure ekonomia sistema”

Veronica Rios

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK

ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzailea: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Marijo Diegracias. **Kazetariak:** Ubane Madera eta Leire Kortabarria. **Publizitatea:** Nerea Zallo, Arantzasu Lagunilla, Arantzasu Arroisba. (Tel.: 943 71 23 91/943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gáinzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90) **Diseinua:** Maddi Trutxuelo. **Asteburuetako berriemakaldea:** Lorea Agiriano **Kolaboratzaileak:** Mikel Irizar, Karmeletxe Perez, Nekane San Migel, Iker Ezpeleta eta Udaleko Gazteria Saila. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odriozola-AED. (Tel.: 943 71 12 28).
©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimatzea:** Gertu Koop. E. (Zubillaga. Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzunkizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.
Azala: Maddi Trutxuelo.

600.000

litro ur kutsatzen ditu bi gramoko botoi-pila batek. Eta hori pertsonak bizitza osoan edaten duena baino 5 aldiz gehiago da.

Datu hau Debagoieneko Man-komunitateak atera berri duen “Birziklapenaren Gidaliburutik” atera dugu.

AURKIBIDEA

• Ikuspegia	3	• Txutxumutxuak	17
• Agur eta ohore		• Asteko gaia	18/19
• Irakurlea idazle.	4	• Dena aldatzen da, baina lutua luxu	
• Inkesta	5	• Kirolak jokoan	20/23
• Euren ikuspuntutik	6	• Eskola kirola	24
• Pedrotxori omenaldia		• Kulturaren txokoa	25/27
• Begi kolpez	7	• Ikusi eta entzun	28/29
• Asteko hitzorduak	8/9	• Dena auto	30/31
• Astearren errepassoa	10	• Azoka plaza	32/33
• Orain eta hemen	11/12	• Aurrez aurre	14/15
• Aurrez aurre	14/15	• Isabel Quintana	
• Foto zaharra	34		

BEHARREZKO TELEFONOAK

Eritetxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
 Iguualatorria 943 71 26 91
 Santa Agedako Ospitalea
 (gizonak) 943 79 39 00
 (emakumeak) 943 79 44 11
 Buru osasunerako zentrua. 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
 Gurutze Gorria 943 76 55 76
 DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua. 943 46 11 11
 Arrasate
 • Txanda hartzeko: medikuntza
 orokorra eta pediatria 943 03 52 50
 • Espezialitateak 943 03 53 11
 • Ikuskatzailea 943 03 52 52
 • Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
 Aretxabaleta 943 79 74 58
 Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Udaltaingoa

Ornati 943 78 04 11
 Bergara 943 77 91 06
 Arrasate 943 79 14 39
 Aretxabaleta 943 79 10 52
 Eskoriatza 943 71 44 07

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
 Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
 Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
 Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
 Gasa 900 40 05 23
 943 79 78 44
 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
 PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentruak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
 Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

- Ostirala, 27**
 • Azkoaga, Ferrerías
- Larunbata, 28**
 • Azkoaga, Iturriotz
- Igandea, 29**
 • Korkuera, Musakola
- Astelehena, 30**
 • Irizar, Erguin
- Astearte, 31**
 • Amezua, Santa Marina
- Asteazkena, 1**
 • Zabala, Zarugalde
- Osteguna, 2**
 • Ruiz, Maalako Errabala

Emakumeen izanei eta iza-teei buruz, sexologia eta feminismoa bezalako diziplinen ekoizpenetik pila-tutako jakintzak, diskurtso ezberdinek (pentsamendu korrontek), eta bi diziplina hauen historiak garaturiko aportazioak hausnartu, aztertu eta elkartrukatzeko gune bat izatea espero du jardunaldi honek.

Jardunaldi honetako programan ekintza hauek izango dira: hitzaldi-etzabaidak, Simone de Beauvoirren bizi-tza eta lana jasotzen duen liburu baten aurkezpena eta zenbait talderen komunikazioa, besteak beste.

Egun honetan jorratzen diren gaiak dokumentu grafiko batean bilduko dira (bideo formatoan), batetik, horien berri emateko eta, bestetik, horiek zabaltzeko, eta aztergai moduan erabiltzeko. Dokumentu hau eskura izango du interesa duen pertsona orok edota edozein taldek.

Arrasateko Sexologia
 Bulegoa

Elefante borroka eta langileak

Afrikako esaera zahar batek hala dio: bi elefante borroka-tzen direnean, benetako galtzailea haiek zapal dutako belarra da. Modu berean, multinazional handiek munduko merkatuen konkistarako abiatu duten borroka handian benetako galtzaileak ipar eta hegoaldeko langileak dira.

Zaila da besterik esatea Indonesia, Txina edota Filipinetan guretzako arropa, zapata edo eta jostailuak egiten dituztenen lan baldintzak aztertuz gero: 70 orduko lan asteak, sindikatuen debeku eta errepresioa, haurdun gelditzen diren emakumeen kaleratzea, lanean onartua izateko VIH froga eskatzea, fabrika barruan bizi beharra... Honela lan egiten da denok ezagutzen ditugun multinazional askok subkontratzen dituzten hegoaldeko enpresatan.

Bidezko merkataritzak egoera hau aldatu nahi du. Pertsona orok ditu giza eskubideak eta lan esparruan ere errespetatu egin behar dira. Bestalde, garbi dugu **Mundu guztian langileen eskubideak errespetatze**alortzen ez dugun bitartean, multinazionalen produkzioa beste norabait eramateko mehatxua egingo digutela. Horregatik, antolatzen diren kanpaina berezietan, hegoaldeko sindikatu eta beste-lako talde sozial eta iparraldeko kontsumitzaileen arteko elkarlana bilatzen da, helburua ez baita hegoaldeko enpresak ixtea, transnazionalen eurentzako lan egiten duten langileak errespetatzea eta bertako pertsonen lan duin bat edukitzea baizik.

Harreman Bidezko Merkataritza Denda

Gidalari berria

Miriam Garcia, 26 urteko mondragoetarra, arduratuko da ARKoren Gida Komertziala egiteaz.

Euskal filologoa da bera eta mota askotako lanak egin izan ditu.

2001eko Gida komertzialaren 11.500 ale banatuko dira urtarrilean etxetan, dendetan, enpresetan eta beste hainbat lekutan.

Miriamek Aretxabaletan, Eskoriatzan eta Gatzagan hasiko du lana eta urriaren erdialdean Arrasaten izango duzue, Idoia Pozo-



rekin batera.
 943 71 23 91 zenbakian hartuko zaituzte.

Mutikoak eta neskatilak berdintasunean hezten dira?

Azaroaren 4an egingo diren jardunaldietan emakumeen eskubideetaz ere arituko dira




Domi del Rio
(58 urte)
Etxekoandrea

Ez, inola ere ez.



Jose Mari Sanchez
(26 urte)
Langilea

Argi dago ezetz. Rolek oso finkatuta jarraitzen dute, eta telebistak ematen dituen desberdintasun mezuak ere eragin handia dute umeengan.



Iban Agirreurreta
(28 urte)
Langilea

Ikastoletan, bai; gure kasuan behintzat horrela izan zen. Etxean, bakoitzak jakingo du. Berdintasuna gero eta gehiago finkatzen ari da.



Angel Puerto
(20 urte)
Ikaslea

Baietz uste dut. Nire bizi-pena horixe da behintzat.



Laura Martinez
(24 urte)
Langilea

Gaur egun, bai. Hala ere, gaurko umeak lehengoak baino okerragoak dira.



Angel Guridi
(69 urte)
Erretiratua

Ikastetxeetan berdin tratatzen dituzte, bai. Baina, etxean apur bat desberdinago. Hori uste dut nik.



Miren Zenarruzabeitia
(53 urte)
Langilea

Lehen baino berdintasun handiagoa dago. Gaztediak beste jarrera batzuk ditu, oso positiboak, nire ustez.



Julia Rodriguez
(51 urte)
Etxekoandrea

Lehen ez bezala, orain behintzat horretan saiatzen gara, eta zer edo zer aurreratu da.

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 943 79 81 82

GANBARA

- Enmarkazioak
- Estiloko markoak
- Laminak
- Arte lanak (margo lanak)

Arte ederretako materialean %25-30eko deskontua

Erquín, 2 behea • Tel.: 943 77 12 37

ML

ILE APAINDEGIA

Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

USTEAK USTE

Kontrako efektua

Egoera zaila bizitzen ari garela begi bistakoa da. Orain arte, baina, leherkariak eta antzekoak eraikinen aurka bota izan dira. Inoiz ez dugu entzun pertsona batek horrelakorik bere eskuetan hartu duenik (ez behintzat gugandik gertu). Oraingoan ez da ezer gertatu eta agian, horrexegatik pasatzen uztea litzateke egokiena. Hori estrategia egoki bat dela esaten omen da: zerbait buruz hitz egiten ez badugu, ez dela existitzen dirudi. Kasu honetan, baina, justu bestelakoa iruditzen zait. Hizketan egiteko gaia da, gure inpresioak azaleratzeko aukera eskaintzen digulako eta bide egokia den edo ez galdetzeko, bide batez.

Guztion nahia da egoera normalizatu batean bizitzea, baina ez da kasua. Hori da bidea? Ekintzak burutzea bidea izanik, eraginkortasuna ere kontuan izan behar dugu eta eragina baita ere. Kontrakoa baldin bada, ez da komenigarria. Eta kasu honetan kontrako eragina izan duela uste dut.

Horrekin lotuta, pintada batzuk ere agertu dira herrian, euskara traketsen idatzita; susmagarriak ote?

Marijo Deogracias



Pedrotxori omenaldia

* Jaione Guezmes

Datorren azaroaren 4an, Arrasateko Amnistiaren Aldeko Batzordeak omenaldi-salaketa bat eskaini nahi dio Pedro Guridi Arozenaren egoerari, bere espetxeratzearen 20. urteurrenean.

Omenaldia, batetik, gizon honek erakutsi duen duintasunari, Espainiako espetxetan erakutsi duena hogeitau urte hauetan. Salaketa, bestetik, hogeitau urte hauetan Espainiako estatuak eta Kartzela Institutuzioak Pedrotxoren deuseztatzea eta berrerospena lortzen baino ez direlako saiatu. Hori lortzeko ez dute zantzarik izan eta tortura, lege antiterrorista, Auzitegi Gorena, isolamendua, mediku zainketa ukatzea eta dispersioa erabili dute beraren aurka, eta orain dela bost urtetik hona, legezko bahiketa ere bai.

Omenaldia, batetik, Pedrotxoren koherentziari, bai eta euskal preso politiko guztienari ere, egunero-egunero jartzen dizkieten presioak gainditzeagatik. Salaketa, bestetik, Pedrotxok orain dela 20 urte jasan

zituena torturenak, eta behin eta berriz jasaten segitzen dutelako ehunka euskal hiritarrek. Erregimen arbitrarioen salaketa, isolamendua, Pedrotxok jasan dituen jipoiak eta estatu frantses eta espainiarrean egiten diren jipoiak salaketa.

Omenaldia, batetik, bere gurasoek hogeitau urte hauetan izan duten sufrimenduari, estatu espainiarreko espetxe mordo bat bisitatu behar izan dituztelako, hitz zakarrak, erdeinuak eta behin baino gehiagotan erasoak jasaten.

Salaketa, bestetik, hoberantz joan beharrean komunikabideei eta politiko "demokratei" esker, geroz eta arris-

kutsuagoa delako bi estatu horietan zehar bidaiatzeko behartuta dauden errepresaliatutako milaka familientzat.

Omenaldia, batetik, euren familiek erakutsitako ausardiagatik, euren bizitzak arriskuan jarriz. Pedrotxorekiko beharrezkoa den harreman horri eusten jakin dutelako, beldurra gaindituz, jakinda zortzi direla jadanik errepidean hildako sendiak.

Salaketa, bestetik, dispersioa amaitu beharrean areagotzen ari delako eta Arrasateko preso politikoak gaur egun Puerto Ien, Granadan, Jaenen eta Madrilan daudelako; eta medioetan makillaje operazioak egin arren, areagotzen ari da egoera hau, Josu Uribetxeberriaren leku aldatzeak erakusten duen bezala. Josu joan den astean Puerto Iera eraman zuten, Arrasatek 1.100 kilometrora.

Omenaldia, azken batean, Pedrotxori, baina elkartasunezkoa euskal preso politiko errepresaliatu guztiei, eta salaketa, dauden egoerari, Euskal Herriaren aurka dauden estatu espainiarren eta frantsesaren errepresioaren eskutian daudelako.

Arrasateko Amnistiaren Aldeko Mugimendutik gonbidatu nahi zaituztegu Omenaldi-Salaketa-
ra, "Gaur errekonozitzen eta salatzen ez duzun hori, bihar zure aurka egon daitekeelako; mugitu zaitez" leloarekin.

* Amnistiaren Aldeko Batzordearen kidea

“Gaur errekonozitzen eta salatzen ez duzun hori, bihar zure aurka egon daitekeelako; mugitu zaitez”

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

HIES
BERRI
Tel.: 943 79 26 99

Eguraldiaren aurreikuspena

Donostiako Metereologia Zentrua



OSTIRALA 27



LARUNBATA 28



IGANDEA 2

Laino gutxi batzuk egongo dira zeruan eta haizeak hegoaldeko aldeetara ahul joko du. Tenperaturak gora egingo du.

Laino altuak agertuko dira eta goizean goiz behelainoa ere izango du. Tenperatura ez da aldatuko.

Lainoak areagotuko dira eta horrekin batera euri arriskua ere bai. Tenperatura ere jaitsi egingo da.

jaiotzak

- Jenifer Aparicio Echenausia, urriaren 17an.

ezkontzak

- Julian Garrido Ruiz eta Ana Maria Castro Ramos, urriaren 21ean.

mezak

San Joan parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
09:00 (euskaraz)
10:00 (gaztelaniaz)
11:00 meza nagusia (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)
19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
11:30 (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:00 (elebiduna)
11:00 (euskaraz)
12:00 (gaztelaniaz)
13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza


Larunbata
19:00 (elebiduna)
Igandea
10:30 (gaztelaniaz)
11:30 San Isidron (euskaraz)
12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jaiegun bezpera eta larunbata
19:00 (gaztelaniaz)
Igandea
12:00 (gaztelaniaz)

Urkuluko uraren maila

%64,4



Ilargia



Ilberri

Ostiralean, urriaren 27an, ilberria izango dugu.

eskelak

Eskelak, esker onak eta urteurrenak jartzeko tartea

Azken eguna: asteazken eguerdira arte

Tel.: 943 71 23 91



LEHENENGO URTEURRENA

Esther Perez De Dios

Urteurrenako meza, Gasteizko N^a. Sra. de la Esperanza elizan, urriaren 31n, asteartea, arratsaldeko 19:30etan izango da.

Aurrez esker ona bertaratuko zareten guztioi. Bere familia.

BASATI TABERNA
DINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK
TLF. 943 711762

Lore

- Lurrindegia
- Kabina
- Fotodepilazioa

Olarte kalea, 10 • ARRASATE • Tel.: 943 79 52 50

27
ostirala

■ ZINEMA

X-Men: 19:30 - 22:00.
7 urtetik aurrerakoendako.

■ HAIKAREN HITZALDIA

Hitzaldi informatiboa eskainiko du Haika gazte erakundeak. Gaztetxean, 17:30ean.

■ TAKOLO, PIRRITX ETA PORROTX

Bere 10. urteurrena ospatzeko, *Takolo, Pirritx eta Porrotx* pailazoen emanaldia antolatu du Euskaldunon Egunkariak. Amaia antzokian, 18:00etan.



■ JAM ARETOA

Dictators taldearen kontzertua izango da Bergarako Jam aretoan. Sarrerak 2.300 pezetan saltzen dira alde zurretik; 2.500 pezetan txarteldegian. 22:00.

28
larunbata

■ ZINEMA

X-Men: 17:00 - 19:30 - 22:00.
7 urtetik aurrerakoendako.

■ LANGRAITZERA MARTXA

Euskal presoekiko elkartasun martxan parte hartzeko autobusa irtengo da Garibaitik, 10:30ean.

Txartelak salgai daude Irati tabernan.

■ ERRETIRATUEN JAIA ARAMAION

Herriko erretiratuen jaia egingo da Aramaion. 10:30ean: kalejira; 12:00etan: Meza; 13:00etan: euskal dantzak eta 14:30ean: bazkaria. Gainera, baserriko produktuen azoka egongo da goiz osoan zehar. Meza ondoren, Sagitario lanen sari banaketa egingo da.

■ HAMLET ETA JAUKO BARIK

Kontzertua eskainiko dute Jam aretoan *Hamlet* eta *Jauko Barik* taldeek. Sarrerak 1.400 pezetan saltzen dira alde zurretik erositara, eta 1.700 txarteldegian. 22:00.

29
igandea

■ ZINEMA

X-Men: 17:00 - 19:30 - 22:00. 7 urtetik aurrerakoendako.

31
asteartea

■ ZINEMA

X-Men: 19:00 - 21:30. 7 urtetik aurrerakoendako.

30
astelehena

■ ZINEMA

X-Men: 19:00 - 21:30. 7 urtetik aurrerakoendako.

1
asteazkena

■ ZINEMA

Space Cowboys: 17:00 - 19:30 - 22:00. 7 urtetik aurrerakoendako.

Film laburren emanaldia

Film laburren emanaldia izango da Amaia antzokian, 17:00etan. Manu Gomezen *Illarri* estreinatuko da. *A darba kar*, *40 ezetz*, *Amor de madre* eta *Haragia* filmak ere ikusteko aukera izango da.



Lan eskaintza

Publizitate teknikaria

BALDINTZAK:

- Euskara ondo menperatzea.
- Harremanetarako erraztasuna izatea.
- Gidatzeko agiriaren jabe izatea.

BALORATUKO DA:

- Publizitate, Marketing edo Enpresa Zientzietan ikasketak izatea.
- Herri Komuniabideak ezagutzea.
- Merkataritza agente bezala esperientzia izatea.
- Arrasate eta inguruak ezagutzea.
- Testu prozesatzaileak eta datu baseak erabiltzea.
- Autoa edukitzea.

Curriculumak azaroaren 17a baino lehen aurkeztu beharko dira, ARKOren egoitzan Otarora Lizenziatua, 31 ARRASATE • Tel.: 943 71 23 90

Kanposantura joateko autobusa

URRIAK 31 (orduro)

Joateko: 10:00ak - 12:00ak

bitartean eta 15:00ak -

18:00ak bitartean, orduro.

Bueltatzeko: 10:30ak -

12:30ak bitartean eta 15:30ak

- 18:30ak bitartean, orduro.

AZAROAK 1 (ordu erdiro)

Joateko: 10:00etatik 13:00era

eta 15:30etatik 18:30era.

Bueltatzeko: 10:30etatik

13:30era eta 16:00etatik

19:00etara.

Geltokiak: Gorostiza, Erguin,

Kukaratxas, San Andres,

Garibai, Maala, S. Frantzisko,

Legarre, Musakola, Joan

Bengoa, Santa Teresa, Cristo

Obreiro, Obenerreka, Makatze-

na, Hilerria. Bueltako ibilbideak

aurkako norantza izango du, eta

Santa Teresan gelditu beharre-

an, Galizia kalean geldituko da.

■ ZERGA ORDAINKETA

Aurtengo jarduera ekonomikoen gaineko zerga eta ondasun higiezinaren gaineko zerga azaroaren 10a arte ordaindu ahal izango da; data horretatik aurrera eginez gero, %20ko gainkarguarekin kobratuko da. Urriaren 30ean zergadunak ez badu zerga agiria etxean jaso, Udaletxean eska dezake.

■ ELKARKIDETZA ETA GARAPENA

Elkarkidetza eta garapenari buruzko jardunaldiak antolatu ditu Euskal Herriko Unicef taldeak. Urriaren 30 eta 31n egingo dira, Monterronen, 18:30ean.

■ MASAJE PSIKOSENTSITIBOA

Masaje psikosentsitibo ikastaroa emango du Jose

Luis Armendiak azaroaren 4, 5, 18 eta 19an. Sormenaren garapena, gorpu, arima eta hunkipenaren arteko harremana eta beste hainbat gai landuko dira. Argibideak: 943 79 35 76 telefonoan.

■ FANDANGO ETA ARIN-ARINA

Fandango eta arin-arin dantza ikastaroa eskaintzen du Bergarako Moises Azpiazu dantza taldeak. Zapatu goizetan ematen da, 11:00etatik 12:00etara, Aranzadi Ikastolan. Argibide gehiagorako, deitu 943 76 15 40 telefonora.

■ KOMIKI LEHIAKETA IV. Komiki Ez Sexisten

lehiaketa antolatu du Donostiako Udalak. 150.000 pezetako sari bakarra emango da.

Azaroaren 24an amaituko da epea. Ondorengo helbidera bidali lanak: Emakumearen Bulegoa - Urdaneta 13, 3.a - 20.006 Donostia.

■ LEHEN JAUNARTZEAK

Joan den domekan bezala, urriaren 29an ere 30 bat neska-mutikok euren Lehen Jaunartzea hartuko dute. San Juan Bataiatzailearen parrokian izango da.

■ EUGI-CAPELLAN, UARKAPEN

Azaroaren 4an, lau t'erdiko txapelketako Eugi eta Capellanen arteko partida estelarra jokatuko da Uarkapen, 22:30ean. Sarrerak ordubete lehenago izango dira salgai, eta erreserbak egiteko deitu 943 82 04 06 telefonora.



AMAGARA

Erdiko kale, 54 behea • Tel.: 943 79 09 09 • ARRASATE

UDAZKENEKO ESKAINTZA BEREZIA

Zure zimurrak betiko kentzen ditugu.



Zatoz! Konpromisorik gabe informatuko zaitugu

Cristina Arruabarrena Doktoreak kolaboratzen du. Kolegiatu zenbakia: 6.073

Eta gainera, gure Estetika Zerbitzuak eskaintzen dizkizu:

- Aurpegi eta gorputzerako tratamendu bereziak.
- Depilazioa argizari bero nahiz hotzarekin, tratamendu progresiboan.
- Depilazio elektrikoa, Blend sistemarekin.
- Makillajea, manikura, betileen permanentea eta tintea.
- Ezpain, begi eta bekainen makillaje iraunkorra.
- Solariuma

09:30etik 19:00etara lan egiten dugu

astea bi hitzetan

■ **Informatika euskalduntzen**

AED eta Arrasateko Udala, Arrasaten informatika euskalduntzeko asmotan dabil-tza. Ordenagailu erabiltzai-leen artean euskarazko sis-tema eragileak eta ofimati-ka programak eskuratu eta erabiltzeko ohitura bultzatu nahi dute. Horretarako, abian jarri dute "Arrasaten infor-matika euskalduntzeko akor-dioa". Horrez gain, diru laguntzak ere izango dira Arrasateko informatika den-detan, euskarazko progra-mak erosten dituztenendako.

■ **Merkataritzako jardunaldiak**

Ibai-Arte dendarien elkartek antolatuta, merkataritza jardunaldiak izan ziren pasa den astean Mondragoen. Bezeroak nola zaindu, arazoak daudenean hauei erantzun egokia nola eman, edo jasotzen diren kexuak bide-ratzen jakiteko aholkuak lan-du zituzten.

Arrasateko Lantegi Eskolan izan ziren eskolak. Partaidetza oso eskasa izan zen: 90 bazkide-tatik, baka-rrik 15ek hartu zuten parte.

■ **Perretxikoak, ugari**

Urteroko ohiturari eutsiz, egubakoitzean Mondragoe-

ko neska-mutiko ugari men-dirako bidea hartu zuen perretxiko bila. Helburua, domekan Laubiden egingo zen erakusketan parte har-tzea zen. Eta lortu zuten, bai, euren asmoa. Eguzkiak lagunduta sekulako erakus-keta antolatu zen Laubiden Arrasate Ikastolaren eskutik. Txanpinoiak, lanpernak, astaputzak eta amanita mus-karia motako perretxikoak izan ziren gehientsuenak.

500 bat ikaslek parte har-tu zuen, X. Perretxiko Lehia-keta honetan.

■ **Euskara eta lana**

Euskara planak aurrera ate-ratzen buru-belarri dabil-tzan hainbat enpresak topaketa izan zuten Aramaion pasa den zapatuan. Enpresa horien artean, Mondragoeko JMA lantegia zegoen.

Aramaioko pilotalekuan enpresa bakoitzaren espe-rientzia azaldu zen eta ondo-ren txikiteoa eta bazkaria izan zuten guztiek elkarre-kin.

JMA enpresa 1998. urte-an hasi zen euskararen era-bilera bultzatzeko plana lan-tzen eta datorren urtean buka-tuko du.

■ **Gastronomia hedatuz**

Hemengo eta kanpoko gas-

tronomia nola egiten den ikusi eta dastatzeko jaialdia izan zen domekan Aretxa-baletan: Extremadurako olio-a, Galiziako olagarroa gaztak, "Fino" ardoa, buz-kantzak...denetarik proba-tzeko aukera izan zen.

Parte hartzaileen artean, Arrasateko "Corazón de Encina" Extremadurako elkarte-a ere izan zen.

■ **Kale bilkurak**

Asteburuan izandako aten-tua gaitzesteko, lehenda-kariaren deialdiarekin bat egin zuten hainbat herritar eta zinegotzik astelehen eguerdian, herriko plazan kale bilkura eginez.

Iluntzean, berriz, Bake-aren Aldeko Koordinakun-deak deituta beste ekitaldi bat izan zen Lau Kalen.

■ **Japoniarrak Arrasaten**


Arrasateko kooperatibak ikustera etorri ziren asteaz-kenean 16 japoniar. Hainbat langile sindikatu-tako goi buruak ziren.

Debagoieneko, eta bere-ziki Arrasateko, ekonomia eta gizarte antolakuntza eza-gutzeko irrikia zuten. MCCra egindako bisitaren ondoren, Xabier Zubizarreta alkatea-rekin ere egon ziren udale-txean.

■ **Musika eta poesia**

Kultur Errotaren eskutik, musikaz jan-tzitako poesia ekitaldia izan zen eguba-koitzean, Amaia Antzokian. Uztail Opa-ro Ostean izeneko taldea aritu zen lan horre-tan.

Pasa den maiatzean sortutako taldea da hauxe, eta Igor Kaltzada gitarrista-ables-laria eta Harkaitz Kano idazleak osatzen dute. Musika eta poesiaz gain, Amaia Antzokian diapositibak ere erabili zituz-ten ekitaldia irudiekin aberasteko.



“ Askotan esaten da norberaren eskubideak defendatu behar direla, eskubide demokratiko bat bezala, eta desobedientzia zibila bide bat da horretarako, baina aspaldian kriminalizatzen ari dira.

Gutziz legitimoa da norberaren kontzientzia defenditzea nahiz eta lege baten aurka jo behar izan hori aldatzeko asmoarekin”.

XABIER SARASUA

Bertatik bertara
(2000-10-25)

Eztabaida politiko sakona Gobernu Batzordean

Pasa den zapatuan JOMAn jarritako bonbak astindu egin du Mondragoeko politikagintza aste honetan. Atzo udalbatzarra elkartu zen udal-txean eta argi eta garbi islatu zen hori bileran, atentatu saiakera eta haren ondorioak izan baitziren hizpide nagusi osoko bilkuran.

GERTAKARIA

Gogoratuko duzue, larunbat goizaldean JOMA enpresaren sarrera nagusiko eskailertan zegoen bonba-paketea bat indargabetu zuten Ertzaintzako artezilariek, hiru orduz lanean jardun ondoren. Zorionez ez zen ezer gertatu, baina txarre-na gerta zitekeen, kontuan hartzen badugu Antton Gallastegik, Jomako ugazabak, eskue-tan izan zuela bonba.

Atentatu saiakera horrekin lotuta, ELA eta EAren gaitzespen idatziak kaleratu ziern, izan ere, Antton Gallastegi EAko militantea da. Horrez gain, hurrengo egunean pintadak ere agertu ziren herrian.

MOZIOAK

Eta esan bezala, ostegunean egin zen batzarrean ere zabal landu zen gaia. Arrasate Presseko erredakzioa itxi zenean, oraindik ez genuen emaitzaren berri, baina jakin badakigu atentatu saiakerekin lotutako bi mozio, behintzat, eztabaidagai zeudela.

Batetik, EAJ alderdiak gaitzespen mozio bat aurkeztu zuen. JOMA enpresari egingdako atentatu saiakera gaitzesteaz gain, enpresako jabe eta langileei elkartasuna adierazi die eta "ETari indarkeriazko ekintza guztiak etete-ko exigitu dio".

Horrekin batera, jakin izan



Joan den larunbatean JOMA enpresaren aurrealdean leherkaria jarri zuten.

dugunez, Eusko Alkartasuna, Ezker Batua eta Euskal Herri-tarrok alderdiak, hau da, udaleko Gobernu Batzordea, testu bateratu bat adosten saiatzen ari ziren artikulu hau idatzi genuenean (ostegun 12:00etan). Horixe izango litzateke udaleko Gobernu Batzordearen mozioa, ondoren, osoko bilkuran aurkeztuko litzatekeena.

INDARKERIA GAITZETSIZ

Aipatutako bi mozio horiez gain, baina, beste hiru ere aurkeztu ziren atzoko bilkuran. Horietako bi indarkeriarekin lotutakoak izan ziren eta EAJ alderdiak aurkeztu zituen biak. Batean, Maritxu Kajoi gauean izandako istiluekin lotuta, hiritarrei elkartasuna eskaintzeaz gain, mota horretako ekintzak giza eskubideen aurkakoak direla adierazten dute eta ekintzen "egile eta bultzatzaileei jarduera horiek bertan behera uzteko exigitzen diete".

Bestalde, ETAk egindako azkenengo hilketak gaitzeste-ko ere beste mozio bat aurkeztu zuen. Laburbilduz, hemengo

gatazka konpontzeko bide bakarra elkarrizketa, oinarri demokratikoak eta euskal gizartearen borondatea betetzea dela adierazi eta ETari indarkeriazko ekintzak bertan behera uzteko eskaera egin zuen talde nazionalistak.

EMAKUMEEN ALDE

Indarkeriarekin lotutako mozioez gain, baina, bestelakorik ere aurkeztu zen atzokoan. Hain zuzen ere, munduan egiten ari den Emakumeen Mundu Martxarekin lotuta, eta ikusita pobrezia eta indarkeriak euskal emakumeengan duen eragina gero eta handiagoa dela, txirotasunak emakumearen independentzia mugatzen duela eta hori mundu osoan dagoela, ondorengo bi eskaerak egingo zaizkio udalbatzarri: Mondragoeko Emakume Kontseiluak: batetik, aipatutako martxari eta Euskal Herrian egin diren mobilizazioei atxikimendua adieraztea. Bestetik, udalek egoera konpontzeko mekanismoak dituela jakinda, "politika ekonomiko eta sozialak indarrean jartzeko" eskatuko zaio.

15 egun kanpaiak isilarazteko

Orain dela urtebete, Mondragoeko San Joan parrokiako kanpaiak gauez, 22:00etatik 8:00etara, isildu egin behar zirela erabaki zuen Arrasateko Udalak, herritar baten kexua jaso eta gero. Dirudienez, herritar horrek ezin zuen gauez lorik egin, kanpaiek sortutako hotsaren ondorioz. Hori salatzeke, hainbat kexu aurkeztu izan ditu udaletxean 1998. urtetik hona, eta Arartekoarengana ere jo zuen.

Baina, Parrokiak ez du oraindik udalaren erabakia bete eta orain, 15 eguneko epea eman zaio horretarako; bestela, udalak berak isilaraziko ditu kanpaiak argindarra kenduz.

Parrokiako Batzordeak jakinarazi digu egoera aztertu eta zer egin erabakitzeke bilduko dela.

Nortasun agiriak

Astelehen honetan ziren emateko nortasun agiriak egin edo berritzeko txanda berriak. Zenbaki horiek azarorako eta abendurako ziren. Baina, astelehenean bertan, bi ordutan agortu ziren. Horrek esan nahi du, datorren urtarrilera arte ez direla txanda gehiago eman-go. Beraz, berehala egin nahi duenak Gasteizera joan behar-ko du, joan den urtera arte egin zen moduan.

Ura eroateko

Bedoña auzora eta Uba, Ibarreta eta Ikutixo baserrietara ura eroateko lanak egitea onartu da udalean. Excavaciones Arrasate, Zutarri eta Urondo enpresek egingo dituzte lanak. Ia sei milioi eta erdiko inbertsioa egingo da horretarako.

Espetxe aldaketa

Baionan atxilotutako bi gazteak, Aitziber Uribebeberria mondragoetarra eta Asier Berdazi bergararra, espetxez aldatu dituzte. Baionatik Boderlera eraman dituzte, Gardignaneko Maison d'Arretera, hain zuzen ere. Senitartekoek oraindik ez dute haiekin egoteko aukerarik izan. Salatu dutenez, bi gazteak erabat bakarturik daude.

BESTE BI

Bi gazte horiez gain, Kepa Urria mondragoetarra ere espetxez aldatu dute egunotan. Madrilko Alcala Mecotik, A Coruña-ko Texeiro presondegira eraman dute.

Josu Uribebeberria, berriz, Valdemorotik Puerto de Santa Mariara eraman dute, Mondragoetik 1.100 kilometrora.

Sustoa Munarren

Martitzen gauean eztanda batek Munar inguruko bizilagunak izutu zituen. Udaltzainak eta ertzainak berehala gerturatu ziren, Aragoa kalera, hain zuzen ere.

Itxura denez, Sabeco etxe-ko Aro Rojo dendan zutabe baten oinarriari pitzadura bat egin zitzaion eta hasieran gaineko etxea arriskuan egon zitekeela ere pentsatu zen. Dirudienez, baina, ez dago bestelako arriskurik. Badaezpada ere, denda apuntalatu egin zuten.

Orain teknikarien lana izango da zer egin behar den zehaztea eta egin beharrekoak egitea, etxearen egitura behar bezala dagoela ziurtatzeko.

Konponketa lanak hasi arte, behintzat, denda zabalik egongo da.

Zergak %2,8 igo daitezke

Arrasatearrok udalari ordaindu beharreko zergak %2,8 igoiko dira 2001. urtean seguru-ekin. Proposamen horixe egin zitzaion udalbatzarrari atzo arratsaldeko bilkuran. *Arrasate Press* inprimategira bidali zenean oraindik bilera egin barik zegoenez, ez dago jakiterik horrela izango den, baina kontrarik ez bada, litekeena da proposamena onartzea.

Horrek esan nahi du inguruko herriekin alderatuz gero, gutxiago igoiko direla zergak hemen.

ITURBIDE, GARESTIAGO

%2,8ko igoera horretan bada- go salbuespenik. Batetik, Iturbide Egoitzaren zergak %10 igoiko dira, batez bestekoa baino nabarmen handiagoa, beraz. Bestetik, Ondasun Higiezi- nen gaineko zergak bere horre-



Egiten ari diren lanen ondorioz, kiroldegietako zergak ez dira igo.

tan segituko du eta Musakola eta Iturripeko kiroldegietako zergak ere bere horretan geratuko dira bi eraikitetan lanak egiten ari direlako. Hori bai, kiroldegietako sauna, medikuntza zerbitzu eta ikuskizunetarako alokairuetan ezarriko da %2,8ko igoera.

Bestalde, Udal Euskalte-

gikoak eta Laubide parkinekoak ere gaur egun bezala segituko dute.

Horrez gain, Uarkape udal pilotalekuko tasak ere proposatu zaizkio udalbatzarrari. Hain zuzen ere, ordu-betez erabiltzearen, 1.000 pezeta ordaindu beharko dute bazkideek eta 2.000 pezeta bazkide ez direnek.

Hiesdunen eskubideen defentsan



Hies Berri elkarteak hiesdun gaixoen eskubideen defentsarako kanpaina berezi bati ekin dio, Espainiako beste elkarteekin batera. Azkenaldian hiesdun hainbat gaixori pertsona gutxitu moduan dagozkien pentsioa kendu egin diete, tartean Mondragoeko zenbaitzuri. Horrez gain, legeak, hies-

dun gaixoak diskriminatu egiten dituela uste dute hiesdunen kontrako elkarteak.

Horregatik, legea aldatu beharra dagoela pentsatzen dute eta mobilizazioak iragarri dituzte. Era berean, legezaren edo pentsioekin arazoren bat duten gaixoek elkarteko ateak zabalik dituztela ere jakinarazi du Hies Berri elkarteak.

Birziklapena indartzeko



Debagoieneko Mankomunitateak hondakinei buruz herritarren esku jartzen dituen zerbitzu guztien berri eman du gidaliburu baten bitartez. Birziklapenaren Gidaliburua izenburuarekin, herritarren ekarpena bultzatzea da helburua, "birziklatzea nahitaezkoa delako ingurumena babesteko". Aste honetan zehar helduko da gidaliburua etxebizitzetara.

GIDA 2001

Badator, badator.


Gida 2001 prestatzen ari gara.
Idoia eta Miriam gaituzue.

Laster zure taberna, denda edo lantegira joango gara.

Arrasate, Aretxabaleta, Eskoriatza
eta **Leintz-Gatzagako** merkatarien
telefono eta helbideak jasoko
ditugu **GIDA 2001**ean.

ARKOren gidan azaldu edo
berri gehiago jaso nahi
baduzu, deitu ARKOra
[943 71 23 91].

Gida
2001,
zure
etorkizunean.



ARKO

Arrasate Komunikabideak

ISABEL QUINTANA (ETXEKO LANGILEEN BIZKAIKO ELKARTEKOPR

“Arazoren bat dagoenel

1986. urtean etxeko langileen egoera arautzeko lege bat egin zen. Baina, lege horrek ez zituen jaso langileen lege orokorrak batzen dituen beste eskubide; askoz ere gutxiago jaso zituen. Horren aurrean, elkarte bat sortu zen Bizkaian: Etxeko Langileen Bizkaiko Elkarte. Ordutik hona, lege hori indargabetzea eta etxeko langileen eskubideak beste langileenak modukoak izatea da taldearen helburu nagusia.

Datorren azaroaren 7an, talde hori Mondragoen izango dugu, etxeko langileen egoera aztertzen. Gai horri buruz zerbait gehiago jakin nahi eta elkarteko prokuradore den Isabel Quintanarekin hitz egiten izan gara.

— Zein da etxeko langileen egoera?

— Lege aldetik egoera nahiko kaskarra da. Adibidez,

orain egiten diren kontratuen %95 ahoz egiten dira. Horrek esan nahi du arazoren bat sortzen den bakoitzean, langileak dituela galtzeko gehienak. Horrez gain, gehienetan soldata eskura ordaintzen da, beraz, legearen aurrean zerbait behar denean, ez langileak ezta lana ematen duenak ere, ez du inolako eskubiderik. Era berean, langilearen estatutuak ezartzen du lanegunen artean 10 orduko atsedendia egon behar dela; etxeko langileen kasuan, berriz, nahikoa omen da 8 ordurekin...

Laburbilduz, etxeko langileen legeak ez ditu jasotzen langileen lege orokorrak jasotzen dituen beste eskubide; horrez gain, legea interpretatzeko aukera ugari uzten duenez, askotan interpretazio guttiz desberdinak eta aurkakak ateratzen dira.

— Egon da aldaketarik

azken urteotan?

— Egoera nahiko antzekoa da. Lege aldetik aldatu den gauza bakarra da orain arte Gizarte Asegurantzaren kotizatze gutxienez astero 27 bat ordu egin behar zirela. Orain 20 ordu egitearekin nahikoa da.

Bestelako legedia igoi-igoi dago.

Gizarteari begira, berriz, esan daiteke egon dela aldaketarik. Gaur egun, etxeko langileek argi ikusten dute eurak ere langileak direla, beste edozein moduan. Horrez gain, lanean jasaten dituzten legez kanpoko egoerak salatzen ausartzen hasi dira, eta ez norberaren egoera salatzeke bakarrik, baizik eta ondoren datozen langileen egoera hobetzen laguntzeko ere... Beraz, hasi gara ikusten nolabaiteko kontzientziazio sozial bat eta lehen hori ez zen gertatzen, ezta gutxiago ere!

Horrez gain, etxeko langileak kontratatzen dituzten pertsona batzuk ere hasi dira gure bulegoetara deitzen, lege aldetik dagoen informazio eske, eta hori aurrerapauso oso handia da.

— Eskaera nagusiak...

— Bereziki Gizarte Asegurantzari begira ari gara lanean: etxeko langile askok ez dute langabezia kobratzen, gaixotasunak edo istripuak eragindako bajak ezin dira kobratzen hasi 28 egun

“Lanean hasi aurretik informazioa lortzea ezinbestekoa da; jakitea zeintzuk diren etxeko langileen eskubideak”



Argazkia: Iñaki Andree

PROKURADOREA)

an salatu egin behar da”

pasatu aurretik... Hori dena aldatu beharra dago.

Horrez gain, lanaren ikuspuntutik, gaur egun badago egunero-egunero 10-12 ordu sartzen duen etxeko langile asko eta asko. Askorentzat horixe da lan egoera normala. Hori ere lehenbailehen aldatu beharra dago.

— Irtenbideak...

— Irtenbideak, noski, politikarien esku daude. Legea aldatu beharra dagoela argi dago, eta noski, hori guk ezin dugu egin. Guk egin dezakegun gauza bakarra salaketak

egitea da, giza kontzientziaioa bultzatzea...

— ¿Baina, arazo politikoa izateaz gain, gizarteko arazo bat ere bada?

— Bai, noski; esan genezake gehiago dela gizarteko arazo bat politikoa baino.

— ¿Erakundeek zer egingo dute?

— Ezer gutxi. Guri diru laguntza ematen digute, eta kitto.

— Zein aholku emango zenieke egoera kaskarrean

dauden etxeko langileei?

— Lanean hasi aurretik informazioa lortzea ezinbestekoa dela; jakitea zeintzuk diren bere eskubideak... Horretarako gaude gu, adibidez. Gipuzkoan gaur egun ez dago mota horretako elkarterik, beraz, gure laguntza behar duenak honako telefonora jo beharko du: 944 15 54 86, astelehen eta ostegunetan, arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara.

Eta noizbait arazoren bat izanez gero, salatu egin behar da. Isilik ez egoteko esango nieke; gure elkartera etorri eta ego-

era salatzeke. Hori, berarentzat ona izateaz gain, gero datozen langileentzat ere ona izango da; horrelaxe sortzen da gizarteko kontzientziaioa.

— Zure ustez badago irtenbiderik?

— Bi motako irtenbideak daude: bata, lege aldetik egin beharrekoa, eta bestea, gizartearen aldaketari dagokiona. Nire ustez lehenago etorriko zaigu lege aldaketa gizarteko aldaketa baino. Gizartean badaude oso errotuta dauden pentsakerak eta horiek aldatzea oso zaila izaten da. ■

"Emakumea eta literatura"

- Hilero liburu baten kritika egingo da modu arin eta ulergarrian. Hitzaldi ostean elkarrizketa izango da.
- Zuzendaria: Itziar Zubizarreta
- Izen ematea: Monterronen, azaroaren 10aren bitartean.

Anima zaituz!

Antolatzailea:



ARRASATEKO UDALA Emakume Saila ■

Laguntzailea:





Euskalduna

Hileta Zerbitzuak

- Etengabeko zerbitzua
- Tramite guztien bideratzea
- Lore koroak - eskelak

Amilaga, 39 ▪ 20570 BERGARA
Tel.: 943 761 299 ▪ Faxe: 943 761 299
e-mail.: harrespil@harrespil.net



Harrespil

Hilerri eta Hileta Zerbitzuak

- Hilerrien gestio osoa eta mantenimendua
- Aldikako lanak hilerrietan

Peñaflorida, 1 B -1 ▪ 20004 DONOSTIA
Tel.: 943 440 198 ▪ Faxe: 943 429 529
e-mail.: harrespil@harrespil.net

ESKULANGILE FINENAK, ABAROAKOAK




Nagusiek egindako eskulan erakusketa izan zuten joan den martitzenean Abaroa Erretiratuen Etxean. Eta, jakin izan dugunez, inondik inora ez zuten espero jasotako erantzuna eta arrakasta. Zorionak, bada, eskulangileei!

IKUSI, IKASI ETA EROSI



Euriak, goitik behera jardun arren, ez zuen zapatuko artisau eta baserri produktuen azoka ilundu. Kontzejupean jo eta su ibili ziren erakusleak. Jendea hurre-ratu zen erosketak egitera, baina baita begiratu eta ikastera ere.



ZORIONAK, GURU!

Gurutze Arizabaletak, Udaltzeko Alkatzeko langileak, 36 urte bete zituen urriaren 17an. Hortxe harrapatu genuen, lankideek emandako oparia jasotzen, irribarretsu oso. Eutsi urte askotan umore on horri!



EUSKARAK UZTARTUTAKO LANGILEAK

Euskara planak aurrera ateratzen ari diren hainbat enpresaren topaketa izan zen Aramaion, horien artean, Arrasateko JMA. Esperientziak elkartrukatu ondoren, txikiteoa, bazkaria eta bertso saioa izan zituzten.


Dena aldatzen da, baina u

Urte batzuk gutxiago nituenean Arrasateko kanposantura etortzen nintzen nire gurasoekin, azaroaren lehenean, gure aitona zenaren hilobia bisitatzen. Oso ume nintzela hil zen eta ez daukat bere oroimen askorik, baina gogoan daukat horrelako egun batean esaldi batzuk idatzi nituela eta bere hilobian utzi nituela. Iaz, ordea, beste aitona hilobia bisitatzen joan nintzen, Antzuolara. Han hilobiak oraindik orain lurrean daude. Hilku-txak lur azpian hilobiratzen dira eta hilarriak filmetan egoten diren horietakoak dira. Noski, kanposantua Arrasatekoa baino txikiagoa da, baina datorren asteazkenean, beste hilerrri askok bezala, lorategi baten itxura hartuko du.

Urteko sasoi honetan, etxe guztietan izaten da norbait oroitzekeo garaia. Loreak erosiko dira herri guztietan eta hilobi gehienetan garbiketarako egingo dira. Horrela agintzen du ohiturak. Jakina, jadanik ez gara beltzez jantziko eta dolua azaldu, lehen bezala. Orain gauzak beste era batera egiten dira. Baina, berriz ere, familiako sendi gehienak elkartzeko aitzakia izango dira hildakoak. Eta horren omenez, etxe askotan familiarteko bazkariak egiten dira Domu Santu egunean.

Gure etxean batzuk behintzat elkartuko gara, ziurrekin. Gure amamarekin kanposantura joango gara eta aitona hilobian loreak jarriko ditugu. Hori egin nuen lehenengo egunean bezain gogorra ez zait egingo, ze oraindik gogoan daukat herriko ehorezlea aitona kutxa lurpean sartzen hasi zen uea. Ez nuke inoiz pentsatuko horrenbeste zirraraz sortaraziko zidanik ekintza hori ikusteak, baina orduan gogoratu nituen betiko hitz

horiek: "hautsetik zatoz eta hauts bihurtuko zara". Hilku-txa dotore hura zulo batean sartu zuen hobiratzaileak, bere betiko teknika erabiliz. Bera lasai asko zegoen; lanean ari zen. Bere inguruan zegoen saminaz eta tristuraz jabetu barik ari zen. Gero, lurra botatzen hasi zen. Hilku-txaren lur kolorea benetako lurrarekin nahasten ari zen. Horrenbeste ordaindutako kutxa estalita gelditzen ari zen, ondo estalita gainera. Eta gero, hilarria heldu bitartean, lur berria izango zuen gainean gure aitona. Izan ere, hilarriak bi aste behar izan zuen iritsi arte, eta ia beste bat gehiago lurperatzaileak bere lekuan ipini zuen arte, gure aitona izenarekin eta bere heriotzaren egunarekin. Lurrari egokitze denbora eman behar omen zaio. Kontua da neuk aukeratutako hilku-txa betiko lurrarazpien geldituko zela eta ez genuela gehiago ikusiko. Beno, hamar urte barru ehorezleak desegin beharko du egindako lana. Hori behintzat egiten da hainbat eta hainbat hilerritan: lurpetik atera kutxa eta hildako-



Berriz ere, familiako sendi gehienak elkartzeko aitzakia izango dira hildakoak

aren hezurak kutxa txikiago batean sartu, eta nahi izanez gero, beste hamar bat urterako lekua hartu beste nonbaiten. Gorpuak berak hamar urteko bakea izaten du eta hezurrek beste horrenbestekoa izango dute aurrerantzean. ■

Marijo Deogracias

OHITURA GARESTIA

Domu Santu eguneko ohiturak erabiltzeko an behin lore sorta bat erostea ez da hain zenbat kostatzen den gure sendiak per...

- **Hileta oharrak**
Arrasate Press: 12.000 pezeta.
El Diario Vasco: 35.960 pezeta.
Gara: 38.222 pezeta.
Egunkaria: 29.232 pezeta.
Arrasate Irratia: 1.000 pezeta.
Loiolako Herri Irratia: 10.000 pezeta.
- **GOITB:** 8.000 pezeta.
- **Kaleko eskelak**
 5.000 pezeta, argazkiarekin edo argazki barik.
- **Lore koroa**
Ehorztetxean: 15.000 pezetatik aurrera
Lore dendetan: merkeena, 25.000 pezeta; garestiena, 30.000.

utua luxu



BESTE AUKERA BAT

San Felipe Apostol anaidi bezala sortu zen eta helburu bakarra dauka: heriotzak eragiten dituen tramite horiek guztiak sendiei gainetik kentzea, une latz horietan. Hori dela eta, dirua irabaztea xede ez duen elkarteak da eta ondorioz, bazkideei nahiko merke ateratzen zaie hileta.

• Elkarteak ordaintzen duena

- Arrasaten,** - 135.000 pezeta:
 - 85.000 pezeta, eskaintzen den zerbitzuaren truke, eta 50.000 pezeta, elkarteak familiari ematen dion laguntasuna.

- Gasteizen,** - 160.000 pezeta:
 - 110.000 pezeta, eskaintzen den zerbitzuaren truke eta 50.000 pezeta elkarteak familiari ematen dion laguntasuna.

• Elkarteak eskaintzen duena:

Hilkutxa, eskelak, hildakoa janzteko lana, autoa, auzitegian egin beharrekoa, mediku ziurtagiria, EAEn edo Nafarroan

egin beharreko lekualdaketa. Heriotza Euskal Herritik kanpo egotekotan, 600.000 pezetarainoko gastuak ordaintzen dira.

GUZTIRA: 135.000 pezeta.

San Felipe Apostol elkarteak 11.850 bazkide ditu aurtan. Bazkide bakoitzak ordaindu beharreko kuota 40 urtetik gora hasten da ordaintzen, eta geroz eta zaharrago izan, orduan eta garestiagoa ateratzen da izen ematea. Hala ere, beti da hileta bat ordaintzea baino askoz ere merkeagoa (41 urterekin 12.000 pezeta ordaintzen da eta 70 urtetik gorakoek 125.000 pezeta ordaintzen dute).

Ez da ez merkea, gaur egun, hiltzea!

egin dira, hiletak bezalaxe, ze urte-
ez hainbesteko gastua, baina badakizue
ik eratztea? Hona hemen datu batzuk:

- **200 oroigarri koloretan, argazki eta guzti** 40.000 pezeta.
- **Hilobia, 10 urterako** (nitxoa, arlosa, mantenua eta ehorzketa eskubideak barne) 70.000 pezeta.
- **Hilkutxa:** 80.000 pezetatik 300.000 pezetara. Ohikoenak 114.000 eta 150.000 pezetakoa izaten dira. Horri kutxa barruan joaten den oihalaren 2.500 pezetak gehitu behar zaizkio.
- **Autoa:** 15.000 pezeta herri barruan. Kanpoko zerbitzuetan kilometrajea ordaintzen da.

GUZTIRA: 245.000 pezeta

*Informazioa Leire Kortabariak bildu du.



FUTBOLA Merezita, irabazi




Ondo merezita irabazi zuen Mondrak igandean.

Ekainek sartu zuen patidako lehen gola. Taldeak konfiantzaz jokatu zuen, burua erabiliz, eta hori igarri egin zen partidak aurrera egin zuen neurrian.

Joko garbia egin zuen, erdialdean lasai jokatuz eta aurrealdera begira, jokaldiak gol aukerekin amaituz.

Okerren, agian, defentsan eta kanporatzeetan ibili zen Leibaren taldea. Horrela etorri ziren Urolaren bi golak.

ESKUBALOIA Etxean saiatu behar



Loiolaren aurka jokatu zuten Arrasate Almenekoek eta partida osoan

zehar aurretik joan ziren arren, azkenean galdu egin zuten mondragoetarrek. Bi taldeen joku maila antzekoa izan zen; Loiolak lehenengo zatian 6 gol baino ez zituen sartu. Mondragoetarrek aurretik joan ziren bigarren aldiko erdialdera arte, eta bost minutuan golak sartzeko arazoak izan, eta horixe amaitu zen guztia. Azken emaitza 12 eta 16 izan zen Loiolaren alde.

SASKIBALOIA Lautik lau



Arrasateko saskibaloitaldeek lau partidak irabazi zituzten asteburuan.

Juniorrek ez zuten jokatu.

Seniorrak Barakaldoko Paules taldearen aurka jokatu zuten etxean. Partida ez zen ona izan, baina irabazi egin zuten arrasatearrek: 85 eta 83.

Garaipen horrekin arrasatearrek sailkapeneko taularen erdialdean jarri dira eta oraindik aurreko jardunaldiko partidak dute jokatzeko.

Beste taldeei dagokienez, 23 urte azpikoek 78 eta 59 irabazi zieten STL Gazteluri eta kadetetan, neskek 44 eta 35 irabazi zieten Indulita Niessen taldeko; mutilek, berriz, 69 eta 35 Askatuak taldean.

ERRUGBIA Irabazten hasi



Arrasateko Errugbi Taldeak ere denboraldiari ekin dio. Etxean aritu ziren Atletico de San

Sebastianen aurka eta sekulako jipoia eman zieten arrasatearrek bisitariei, markagailua ikustea besterik ez dago: Arrasatek 68 - Atletico de San Sebastianek 14. Hala ere, bisitariak etxekoek bi akats aprobetxatuz, bi entsegu egin zituztela.

PILOTA Seitik hiru



Seitik hiru partidak irabazi zituzten Arrasateko pilotarietako den asteburuan.

Guztia ere, Gipuzkoako herri arteko eskuz binakako txapelketako partidak izan ziren. Garaipen aipagarriena, Aretxabaletako Iturrigorri pilotalekuan eskuratutakoa: Iker Zugasti eta Lordi Zuazubiskar, Errasti anaiak baino gehiago izan ziren eta 11 eta 22 irabazi zieten atxabaltarrei. Nor baino nor hobeto ibili ziren mondragoetarrek, eta Zugastik, adibidez, akats bakarra egin zuen: aurkariaren sarea boleaz moztu nahi izatea. Txalo ugari jaso zituen aurrelari arrasatearrek, jokaldi arrisksu asko egin zituen-eta.

Beste garaipena lehen mailako kadeteek (Aritz Zuazua eta Aitor Agirrerena) lortu zuten. Bidanian jokatu zuten Tolosako bikotearen aurka eta 10 eta 22 irabazi zuten.

Bigarren mailako afizionatuek ere, Osinaga eta Lazkano, irabazi egin zuten, baina hauek gehiago sufritu behar izan zuten garaipena eskuratzeko. Zumarragan jokatu zuten eta azken emaitza 14-22 izan zen.

Ostiralean Uarkapen ere partidak jokatuko dira. Gaueko 22:00etan hasiko dira bi neurketa jokatuko dira.

Borroka-arte erakustaldia

Larunbatean Uarkapen arte martzialen erakustaldia egingo da, baina erakustaldi berezia izango da; izan ere, Arrasateko Aikido Taldeak Aretxabaletako Hiruatx Gobernu Kanpoko Erakundearekin batera antolatu du borroka-arten erakustaldia.

Helburua da jasotzen den dirua Indiako Gujerat herrira bidaltzea, hantxe esne kooperatiba bat egiten laguntzeko. Iaz ere egin zuten beste erakustaldi bat eta proiektu berberari laguntzeko izan zen: esne behiak erosteko. Erantzun ona izan zuten orduan eta aurten ere horixe bera antolatu nahi izan dute.

Jadanik, egiten den seigarren erakustaldia izango da larunbatekoa eta Uarkape Udala Pilotalekuan izango da. Erakustaldia arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara bitartean egingo dute.

Ekitaldia Hiruatx taldeak hasiko du, eta Gujerat herrian egiten dabilen elkartasun proiektuaren berri emango du; ondoren, bertsolariak arituko dira eta baita txalapartariak ere. Kirol ekitaldiei dagokienez, lehenik eta behin aerobic erakustaldia egongo da eta ondoren hasiko da borroka-arten erakustaldia: aikido, ninjitsu eta wintuneko erakustaldiak.

Jokatzeak

FUTBOLA

- **Lehen mailako gazteak:** Mondra - Burumendi, igandean, 11:30ean.
- **Bigarren mailako kadeteak:** Arrasate - A Ondarroa, igandean, 16:00etan.
- **Ohorezko infantilak:** Arrasate - Aloña Mendi, larunbatean, 12:00etan.

ESKUBALOIA

- **Seniorrak:** Arrasate Almen - Arrate, larunbatean, 18:00etan.
- **Kadeteak:** Arrasate - Beasain, larunbatean, 16:15ean, Iturripen.

SASKIBALOIA

- **Juniorrak:** Kenci Arrasate - CD Internacional, larunbatean, 16:00etan, Musakolan.

PILOTA

- ostiralean, Uarkapen, 22:00etan
- **Lehen mailako gazteak:** Arrasate - Andazpe (Usurbil)
- **Lehen mailako afizionatuak:** Arrasate - San Esteban (Tolosa)

XAKEA

- Larunbatean, Al Andalus elkarteko liburutegian, 16:00etan.

• Gipuzkoako liga:

- San Andres B - Fortuna
- **Gipuzkoako lehen maila:** Arrasate C - Idiazabal
- **Gipuzkoako 3. mailan:** Arrasate D - Lazkao C

* **San Andres Xake taldea** astelehen eta eguaztenetan elkartzeko da Errebuelta kalea, 4an.
Tel.: 943 79 97 02



Udalaitz, S.L.

Musakola auzoa, z/g • ARRASATE
Tel.: 943 79 18 80 / 943 79 21 25

Orain aukera paregabea!



- Eskelak eta lore koroak
- Etengabeko zerbitzu profesionala
- Tramite guztiak bideratzen ditugu

MOIUA
HILETA ZERBITZUAK

Kale Zaharra, 5 - 2 • Tel./Faxa: 943 78 34 47 • OÑATI

Azaro betea Amaia Antzokian

Zinea

AZAROAK 2

Laburren emanaldia

■ Illarri

Zuz.: MANU GOMEZ



- A dar bakar. Zuz: Koldo Almandoz
- 40 ezetz. Zuz: Asier Altuna.
- Amor de madre. Zuz: Koldo Serra eta Gorka Vazquez
- Haragia. Zuz: Begoña Vicario.

AZAROAK 9

■ Asfalto

Zuz: Daniel Calparsoro

AZAROAK 16

■ Una historia verdadera

Zuz: David Lynch

AZAROAK 23

■ ¿Qué es la vida?

Zuz: Francois Dupeyron

AZAROAK 30

■ El coronel no tiene quien le escriba

Zuz: Arturo Ripstein

AZAROAK 12

Fantasiatzko eta beldurrezko zine maratokia

Laburrak:

■ Hospital Krev

■ "7337"

Filmak:

■ El convento del diablo

■ La sombra de Frankenstein

■ The irrefutable Truth about demons

Antzerkia

AZAROAK 5

■ Con cierto desconcierto
Psicosis Gonsales



AZAROAK 19

■ Hipo
Yllana eta Sexpeare Produkzioak



Haurrentzako Antzerkia

AZAROAK 25

■ Txirrikiz
Kukubiltxo antzerki taldea



Musika

AZAROAK 18

■ Goikobalu abesbatza eta Bergarako Orfeoia.



ARRASATEKO UDALA Kultura Saila ■

San Andres xake taldea ere, abian

Lau talderekin ekin dio San Andres xake taldeak denboraldiari. Etxean jokatu zuten lehen bi taldeek eta kanpoan beste biek. Bi irabazi egin zituzten eta bestea galdu; izan ere, bigarren taldeak lehenengoaren aurka jokatu zuen. Bi hauek Gipuzkoako ligan arituko dira: Arrasate A eta B taldeak, hain zuzen ere.

A tadea, Luis Angel Ortega, Josu Tornay, Txema Hernando, Isidro Ruiz, Martin Arriaran, Julio Prieto, Fernando Ortega eta Vallinak osatzen dute.

tzen dute.

B taldean, berriz, Eugenio de Andres, Juan Carlos Mayo, Roberto Villar, Roberto Andres eta Jabier Axpe arituko dira.

Gipuzkoako gorengo ligan, Arrasate A eta B taldeak aritu diren ligan, 14 taldek jokatzen dute. Arrasateko A taldeak txapelketa irabazteko aukera asko ditu; talde hau da Euskal Ligara igotzeko faborito nagusia. Arrasate Bk eta Ck euren mailari eustea daukate helburu, eta Arrasate D bigarren mailara igotzen saiatuko da. C taldea Gipuzkoako lehen maila jokatzen ari da eta D taldea, berriz, Gipuzkoako hirugarren mailan dabil.

Lehenengo jardunaldiari dagokionez, Al Andalus elkarte liburutegian elkarren aurka jokatu zuten San Andres A eta B taldeek. Lehenengoek (Ortegak, Tornayk, Hernandok eta Ruizek) 4 partidak irabazi zizkieten B taldekoei (Eugenio de Andres, Mayo, Villar eta Axpe).

Datorren astean, ordea, arazoak izango dituzte taldea osatzeko, pare bat konpromiso tarteko.

XAKEZALEEI DEIA
Astelehenero, arratsaldeko 19:30ean, asteburuko partidak komentatuko dituzte Errebuelta kaleko egoitzan eta eguaztenetan, berriz, ordu berean, lokala zabalduko da partidak jokatzeko. Beraz, xakezaleok badakizue nora jo!

XAKEZALEEI DEIA

Etzeko partidak aurten Al Andalus elkarte liburutegian jokatuko dira.

ARRASATE A TALDEA



Luis Angel Ortega
31 urte
4. denboraldia
San Andres taldean



Josu Tornay
29 urte
4. denboraldia
San Andres taldean



Txema Hernando
28 urte
14. denboraldia
San Andres taldean



Isidro Ruiz
35 urte
3. denboraldia
San Andres taldean



Martin Arriaran
33 urte
3. denboraldia
San Andres taldean

ARRASATE B TALDEA



Eugenio de Andres
43 urte
29. denboraldia
San Andres taldean



Juan Carlos Mayo
36 urte
25. denboraldia
San Andres taldean



Roberto Villar
25 urte
11. denboraldia
San Andres taldean



Roberto Andres
31 urte
9. denboraldia
San Andres taldean



Jabier Axpe
41 urte
6. denboraldia
San Andres taldean



Maila guztietarako kirola aukerak

Arrasate Kirol Proiektuak aurretan ere Lehen Hezkuntzatik aurrerako umeei eskaintzen die kirola egiteko aukera.

👉 KIROL JOLASAK

AKPn ari diren ume gehienak Lehen Hezkuntzako lehenengo eta bigarren mailako neska-mutikoak dira. Iaz psikomotritzitatean aritu ziren, baina aurretan izena aldatzea erabaki dute psikomotritzitate hitzak ez baitzuen ekintza bere osotasunean izendatzen.

Bi saio izango dituzte astean zehar; gainera, bost bat astetik behin, zapatuetan, ekintza berezi batez gozatzeko aukera izango dute: igeriketa, altxorren bila etab..

👉 AURREKIROLA

Lehen Hezkuntzako 3. eta 4. mailako ikasleak ari dira maila honetan. Hainbat kirolekin euren lehen hurbilpena egiteko aukera dute urtean zehar. Aurretan minieskubaloia, minisaskibaloia eta areto futboleko 3 jardunaldi izan beharrean, 5



izango dituzte. Horrez gain, beisbola eta floorbola bezalako kirol bitxiak ezagutzeko aukera ere izango dute, eta baita bakarkako hainbat kiroltan trebatzeko aukera ere: eskuz eta palaz jokatutako pilota, atletismoa, igeriketa...

👉 MULTIKIROLA

LHko 5. eta 6. mailatan dabilen ikasleei aurkezten zaie oinarriko programaz gain, aukeratzen duten kirolean urte osoan trebatzeko aukera izango dute aurretan.

Oinarriko programan, areto futboleko, minieskubaloian eta minisaskibaloian jokatuko dute zazpi jardunalditan; errugbi, atletismo eta pilotako jardunaldiak puntualak ere izango dira. Oinarriko programa astean birritan eta asteburuero landuko dute.

Bestalde, ikasleek aukeratutako kirolak herriko elkarrekin egingo dituzte, kirol horietan modu bereziz trebatzeko. Ekintza hauetan, astean zehar entrenamendu bat eta noizean behin asteburuero

ekintzen bat ere aurreikusitena da.

👉 INFANTILAK

Hemen Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek nahi duten kirola aukeratu eta ikasturte osoan zehar horretan ibiliko dira, orain arte bezala. Kirol eskaintza zabala da: saskibaloia, atletismoa, tenisa, aerobika, txirrindularitza, eskubaloia, pilota, errugbia, igeriketa, futbola, xakea...

👉 MENDI IRTEERAK

Aurreko urteetan bezala, aurrekirolaetik gorako ikasleentzat eta hauekin joan nahi duen edozein senitartekorentzat, hilean behin, mendi irteerak antolatuko dira igande goizetan. Eta ekintza hori domeka honetan bertan hasiko da. Udanatik Aloharrak bidea egingo dute eta horretarako goizeko 08:30ean irten goziko dira ohiko lekutik eta eguerdiko 13:30-14:00ak aldera itzuliko dira.

Asteburuko hitzorduak Urriak 28, larunbata

👉 AURREKIROLA ATLETISMOA

Jurripen

10:00 SFX A, SFX C, SFX D, SFX E, Musakola, Erguin, Aramaio

👉 ESKU PILOTA

Uarkape

10:00 SFX ST, SFX B, SFX U, La Merced B, La Merced A, S. Viator A, S. Viator B

👉 MULTIKIROLA MINISASKIBALOA

Musakola

👉 NESKAK

10:00 La Merced - SFX U
12:00 Erguin - SFX A

👉 MUTILAK

10:00 Erguin - San Viator
11:00 SFX U - Aramaio
Musakola - SFX A
12:00 SFX B - La Merced

👉 SASKIBALOA NESKAK

Autobusa, Garibaien

10:00 S. Viator A - Aozaratza 1b
11:00 D.B.H. 1 - SFX
10:00 M. Lagundia - San Viator

👉 MUTILAK

10:00 Aozaratza 2a - SFX
11:00 S. Viator - Aozaratza 1b

👉 FUTBOLA NESKAK

Autobusa, Garibaien

09:30 SFX - Kurtzebarri
09:30 La Merced - M.Lagundia
10:45 Txantxi 2a - Arrasate

👉 MUTILAK

12:30 Txantxi 1 - SFX
09:00 Aranzadi - La Merced

Taldez talde

👉 MULTIKIROLA MINISASKIBALOIKO TXAPELKETA

1go jardunaldia

👉 NESKAK

	Partaidetza	Jarrera	Puntuak	Guztira
SFX A	3	3	3	9
SFX U	3	3	3	9
Merced	2,5	3	1	6,5
Erguin	0	3	1	4

👉 MUTILAK

	Partaidetza	Jarrera	Puntuak	Guztira
1. SFXB	2,5	3	3	8,5
2. Aramaio	2,5	3	3	8,5
3. SFX U	2	3	3	8
4. Merced	1,5	3	3	7,5
5. Erguin	2	3	1	6
6. Musakola	0	3	1	4
7. San Viator	0	3	1	4
8. SFX A	0	0	0	0

Denok dugu zer eman Zahar-Berrin

Euskara ikasten ari direnei laguntzeko asmoz abiarazi du AEDk Zahar-Berri egitasmoa, hirugarren urtez. Euskaldun zahar eta berriek elkarrekin euskal giroan mintza-praktika egitea eta, bide batez, ondo pasatzea du helburu, herriko euskararen gakoak euskaldun berriek ere beregana ditzaten. Euskaldun zaharren parte hartzea ezinbestekoa da; beraz, izena emateko deialdi berezia egiten die AEDk. Pablo Uranga 4an izango dituzue esku-orriak.



Hainbat afari antolatzen dituzte urtero parte hartzaileek.

IRTEERAK, GASTRONOMIA...

Bi parte hartze mota daude: batetik, hiztunek eta ikasleek binaka edo hirunakako taldeak osatzea, eta euskaraz ari ziteza euren gustuko ekintzak

eginez. Bestetik, euskaldun zahar eta berriak taldean elkartzea eta guztiok batera egiteko ekintzak adostea. Binaka edo hirunakako parte hartzaileak ere sar daitezke talde horretan.

Erantzun ona izan du orain

arte Zahar-Berri: 70 lagun mugitu izan ditu urtero. Denetarik aisialdi ekintzak egin izan dituzte esku-hartzaileak: irteera luzeak nahiz egun batekoak, eskulanak, gastronomia jarduerak, afariak, lehiaketak...

Gaztedia Teknikaria BLANKA JAUREGI

“Estatuko 50 argazki lehiaketa onenen artean dago Arrasatekoa”

Cadiz, Lleida, Bilbo eta Sevillara joan dira udalak eta ASA taldeak antolatutako argazki lehiaketako sariak. XI. edizioa izan da aurten, eta “Gazteak eta Arrazakeria” zen gaia. Udalaren aldetik, Gazteria eta Emakume sailek antolatzen dute.

—Zenbat parte hartzaile izan dira aurten?

—19 lagunek esku hartu dute, 45 lanekin. Monterronen erakutsiko dira guztiak, azaroaren 4a arte.

—Zein alde dago aurreko ekitaldiekin?

—Jende gutxiagok hartu du parte, baina, epaimahaiaren iritziz, kalitatea igo egin da. Gaia zail samarra ez ote zen, eta horregatik izan ote den lehiakide gutxiago komentatu dute epaileek. Dena dela,

hedapen handia du: argazkilaritza aldizkari batek Estatuko 50 lehiaketa onenen artean aukeratu zuen.

—A kategorian (14-18 urte bitartean) ez da inor aurkeztu.

—Iaz ere ez. Orain bi urte bai, baina saria hutsik geratu zen, eta akaso horrek desanimatu egin du jendea. Dena dela, normala da gaztetxoak ez aurkeztea, ez baitute argazkilaritzarekiko zaletasun handirik.



Argazki eta margo erakusketak Gure-Lekun

Bi erakusketari ari dira egunotan Zarugalde kaleko Gure-Leku tabernako paretak apaintzen. Maritxu Kajoi gaueko giroa islatzen duten argazkien erakusketari da bata. Tabernako arduradunetako batek, Agustin Murillok, ateratak ak dira, eta urtero bezala zabaldu du aurten ere erakusketari.

Eta jaia ez, baizik eta gorputza da Mari Beltza Egiguren donostiarraren margo erakusketaren gaia. *El Kaos Sensible* izenburupean, gorputzak pentsarazten diona azaltzen du: “Nire espazio partikularra, pribatua, da nire gorputza. Agudo joaten diren gertaeren lekua da. Gaur eguntasanaren nire bizipena da”, dio egileak.

Illarri aurkeztuko da

Illarri, Manu Gomez zuzendari arrasatearraren azken lana, Arrasaten aurkeztuko da datorren egunean, azaroak 2, Kultura Sailak prestatu duen film laburren emanaldi baten barruan. 17:00etan izango da, Amaia antzokian. Ekitaldi honekin estreinatuko da udalak azarorako prestatu duen zinema emanaldia. Maider Egues eta bere ama agertzen dira protagonista moduan *Illarri*, eta Donostiako Zinemaldian ere eskaini zen.

*Illarri*ren ondoren, beste lau film labur ikusi ahal izango dira, nahiko entzutetsuak, gainera: Koldo Almandozen *A dar bakar*, Asier Altunaren *40 ezetz*, Koldo Serra eta Gorka Vazquezzen *Amor de Madre*, eta Begoña Vicarioren *Haragia*.

asteko filma



X-Men

EEBB, 2000. Akziozkoa. (*X-Men* komikiaren moldaketa). **Zuzendaria:** Bryan Singer. **Aktoreak:** Hugh Jackman, Anna Paquin, Patrick Stewart. **Kalifikazioa:** 7 urtetik aurrerakoendako.

HARIA

Homo sapiensa gainditu duen espeziea jaio da: mutanteak, gorputza eta burua ahalmen miragarri hornituta dituzten alterazio genetiko batekin jaiotako gizakiak. Euren beldur da populazioaren gehiengoa, eta mutanteek bi bide dituzte: gizaki arruntarekin bakean bizitzen saiatu, eta *Charles Xavier* mutante jakintsuarekin bat egin, edo, *Xavierren* aspaldiko ezagun eta arerio den *Magnetoren* gidaritzapean, gizakien aurkako gudua antolatu.

KRITIKA

Zuzendari bikain baten esku utzi da *X-Patrula* komiki arrakastatsuen zinema moldaketa egitea, Bryan Singerren ("Sospechosos Habituales") esku alegia. Aktoreak, izen handidunak baino, antzezle onak dira. Ikus-efektuak, ikusgarriak: izpi suntsigarriak hara eta hona, buruko energiarekin martxan jartzen den makina asmatzailea, gelatina bihurtzen diren gorputzak... Horiek dira film honen zutabeak; istorioa, mehea, baina ez gure aurreiritziek pentsarazten diguten bezain hutsa: giza bazterketa mota guztien aurkako mezu batean oinarritzen da, eta indarra ematen dio horrek kontakizunari. Kamera, zentzu onez erabilia dago, behar denean soseguz, behar denean dinamismoz.

irakurle eta entzule

Iturria: Eya eta Hire

diskoak

LA OREJA DE VAN GOGH

El viaje de Copperpot (Sony)



Disko honetan sarritan errepikatzen den motibat oroitzapena da. Bukatu diren amodio edo bizitza aldien inguruko gogoretak dira gipuzkoarren bigarren lan honen gai nagusi. Doinuak bat datoz historiekin, eta, oro har, *Dile al Sol* arrakastatsua baino leunagoak dira; ordukoak baino landuagoak eta, neurri batean, dotoreagoak ere bai; geldoak batzuetan, rock tankerakoak bestetan. Baina, orduan hain arrakastatsu izan zen pop martxoso eta freskoari eusten diote, *Cuidate* edo *La Chica del Gorro Azul* bezalako abestietan. Beti doinu berberekin geratzerik ez zutela nahi erakutsi dute donostiarrek; bai jarrera, bai eta emaitzak, txalogarriak dira. Baina, diskoa borobil-borobila izaten uzten ez duen abestirik ere badago, eta hori guztia, theremin tresna karrankariaren erruz: "bidaia" gustagarri hau iluntzen duen trakeskeria bakarra.

liburuak

EGONEAN DOAZEN GEZIAK

Joxerra Garzia. Alberdania arg. 202 or.



Metafora eta aforismo -metaforismo, alegia- bilduma oparoa prestatu du Joxerra Garzia irakasle, kazetari eta idazle legazpiarrak. Metafora bat da liburua bera. Hitzaurrean ohar-tarazten digu Joxerra Garziak geziak balira bezala jaurtikitzen dituela liburuko esaldi eta testu labur-laburrak. "Armetan arinena da gezia. Jotzen duena jotzen du, albo-kalterik eragin gabe. Jotzen duen lekuan ere, ez du zauri larririk eragiten: azkura moduko zer bat, jo-muga bete-betean jotakoa ere apenas dardar doi bat eragitera hel daitekeena", azaltzen du atarian, eta horixe da liburuko gezi gehienek duten efektua. Azkura mota asko eragiten dute, baina, geziak eurak ere ez dira guztiak berdinak: hitz-joko burutsuak batzuk, modu jostagarrian adierazitako gogoeta sako-nagoak besteak, txiste moduko pasadizo edo kontakizun telegrafikoak ere bai.

asteburuan zer

kontzertuak

LAN BERRIA AURKEZTUKO DU HAMLET-EK

Urriaren 28an, 22:00etatik aurrera, metal estiloko Espainiako talderik interesgarrienetariko bat entzuteko aukera izango dugu Bergarako Jamen: Hamlet. "El Interno" diskoaren edukia xahutuko dituzte zuzenezuzenean.



"In somnio"ren arrakastak Europa

osoan bira bat ekarri zuen, eta bira horrek eman zizkien disko berriari sartzeko ideia mamitsuak. Hamlet taldekoak metal musikagintzaren abangoardia izan badira, bilduma honekin orain arte egin duten lana gainditu nahi izan dute. Adituek esaten dutenez, bai soinua produzitzeko moduan, bai eta letragintzan ere, taldearen garapenaren isla da "El Interno"; lan melodikoa, bai, baina euren metal jatorria gordez.

Zilegi bada Hamlet-estiloaz berba egitea, disko honetan daude, ondo lerrotuta, horren ardatzak. Klasikoa da euren gan, salaketa eta amorrutako abestiak egitea (Tortura-Vision, Dementes Cobardes), baina orain, kantu askoz pertsonalagoekin harrituko gaituzte.

VERONICA RIOS (UNICEFEKO KIDEA)

“Bukatzer a bideratuta egon behar da elkarkidetz a”

Sortzez ez bada ere, bizi izatez behintzat arrasatear dugu Veronica Rios. Munduko lurraldeen arteko desberdintasunek arduratuta, Unicef elkartearekin lanean dabil orain hilabetetik. Astelehen eta martitzenean elkarteak antolatu dituen “Elkarkidetz a eta Garapena” izeneko jardunaldiak prestatzen dabil orain Veronica.

—Zein da jardunaldion egitaraua?

—Urriaren 30ean, lurraldeen arteko desberdintasunen jatorria azalduko dugu, eta garapenerako elkarkidetz a zer den mahairatuko dugu. Urriaren 31n elkarkidetz an sakonduko da: zer den, gaur egun zertan dagoen, eta behar duten lurraldeetan bertan nola egin behar den lan: kontuan hartu behar dira, adibidez, lagundutako herriaren proposamenak, eta ez guk hoberentzat jotzen duguna egitera mugatu.

—Lurralde horietara joan barik, zein da laguntzeko modua?

—Desberdintasun hauek baldintza makroekonomikoetan dute jatorria. Behar direnen aurrean protesta egin eta eskakizunak planteatu beharko lirateke. Gainera, elkarteren batean parte har dezakegu; izan ere, gertu dagoenaren elkarkide izan behar dugu lehenengo, gero urruti dagoen horrena izateko.

—Zein izan behar da, zure ustez, elkarkidetzaren benetako zentzua?

—Desberdintasunek sustrai historikoak dituzte: historikoki, herri batzuek beste batzuk menpean izan dituzte. Beraz, oso zaila da hori konpontzea, eta dirua bidaltzea ez da nahiko, nahiz eta herri behartsuek eskertzen duten. Herrien garapena



ahalbidetuko duen kooperazioa proposatzen dugu guk, ez pobrezia hori aldi baterako leunduko duena bakarrik. Horregatik, egunen batean bukatzera bideratuta egon behar da elkarkidetz a, herri horrek bere kabuz egin behar baitu aurrera.

—Gizabanako moduan zer egin dezakegu?

—Gero eta gehiago kontsumitzera bultzatzeko dago diseinatua gure ekonomia sistema. Beraz, arduraz kontsumitzea da gizabanako bezala egin dezakeguna. Bestalde, iparraldeko herriak gara gehien kutsatzen dugunak, baina hori herri txiroek ere jasan behar dute; hor ere bakoitzak badauka zer egin.

—Arrasate herri kontzientziatua da?

—Beste batzuen aldean, parte hartzea nahiko ona da. %0'07ren kanpainan, edo Mitch hurakana izan zenean, oso emaitza onak izan ziren. Baina, inguruneak bere baitan hartzen gaitu, eta kontsumitzera eramaten. Horrek ez ditu Arrasateko emaitza onak gutxiesten.

“Herrien garapenerako kooperazioa proposatzen dugu guk, ez pobrezia aldi baterako leunduko duena”

aste gazte

■ KONTZIENTZIA ERAGOZPENA

• Soldadutzaren inguruan gorabehera edo zalantzarik baduzu, pasa zaitez bulegotik eta zein aukera dituzun azalduko dizugu.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Unibertsitate mailako eta goi mailako beste ikasketa batzuk egiteko urteroko diru laguntzak, Eusko Jaurlaritzaren eskutik. Epea: urriak 31.

■ LANA

• Bergarako Udalerako atezaina eta agiritegirako administraria behar dira. Epea: azaroak 7.

• Bilboko Udalerako aukera berdintasuneko teknikaria, liburuzaina eta gizarte langilea behar dira. Epea: EAOn argitaratu zain.

• Asteazkenero jasotzen dugu, asteburuan hainbat egunkaritan azaltzen diren lanpostu iragarkien bilduma. Interesik edukiz gero, pasa zaitez bulegotik.

■ IKASTAROAK

• “Emakumea eta Literatura” tailerra, Emakume Sailak antolatuta. Hilero liburu baten kritika egingo da. Aurkezpena: urriak 25.

• Zeramika Ikastaroa, Buztingorri Zeramika Eskolaren eskutik. Astearte eta ostegunetan, 19:00etatik 21:00ak arte.

■ JARDUNALDIAK

• Kooperazio eta garapenari buruzko eskualde jardunaldiak, Unicefek antolatuta. Urriaren 30a eta 31 bitartean Monterronen, arratsaldeko 18:30etik aurrera.

• “Emakumeak: izanak eta izateak, Feminismoa eta Sexologiatik begiraturik”. Eskoriatzako Humanitate eta Hezkuntza Fakultatean, azaroaren 4an. (Aldez aurretiko izen ematea).

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

☎ 943 77 00 65

Goitb

Goiena Telebista

OSTIRALA, 27

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 13:55 **Ekilan** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Astebete.**
 22:00 **Soinuz blai.** Miren
 Gonzalezek aurkeztuta.
 22:30 **Gatza eta Berakatza.**

LARUNBATA, 28

13:30 Asteko programen
 errepika: **Gatza eta
 Berakatza, Alkatearekin
 berbetan, Ekilan, Soinuz
 Blai eta Astebete.**

IGANDEA, 29

13:30 Asteko programen
 errepika: **Gatza eta
 Berakatza, Alkatearekin
 berbetan, Ekilan, Soinuz
 Blai eta Astebete.**

ASTELEHENA, 30

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 13:55 **Astebete.**
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Goienasport.**



Gorka Etxabe.

22:00 **Gatza eta Berakatza.**

ASTEARTEA, 31

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 13:55 **Goienasport** (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**



Maider Osa.

21:30 **Mahaiaren bueltan.**
 Monika Belastegik
 aurkeztutako solasaldi
 saioa.
 22:15 **Gatza eta Berakatza.**

OSTEGUNA 2

13:30 **Albiste aurrerapena.**
 13:40 **Gatza eta Berakatza.**
 13:55 **Mahaiaren Bueltan**
 (errepika).
 20:00/20:30/21:00 **Berriak.**
 21:30 **Hamaika Magazín.**
 Adi zozketara! Deitu 943
 71 23 93 telefonora.



Amagoia Lasagabaster.

22:00 **Soinuz Blai.**
 Haika Aizpuruak
 aurkeztuta.
 22:30 **Gatza eta Berakatza.**

Gatza eta Berakatza



Nork ez du izan behin baino gehiagotan afaltzeko ogitar-
 teko bat jateko gogoia? Aste honetan izugarritzko ogitarte-
 koak egiten erakutsiko digu Goiz Alde dastaketako Leire
 Oleak. Ez ezazue galdu benetan merezi du-eta. On egin!

Datorren astean

NOIZ

Astelehena 30
 Asteartea 31
 Osteguna 2
 Ostirala 3

PLATERA

Ogitarteko bejetala.
 Txapata ogitartekoa.
 Bagetina txikia.
 Ogitartekoa ganba eta
 baratxuri tortillarekin.

hamaika
MA GAZIN
 Ez galdu aukera!!



**Momentu
 berezienak
 behin eta
 berriz bizitzeko**

har ezazu parte IKATZ lehiaketan!

IKATZ
 ARGAZKIGINTZA
www.ikatzen.es

Plaza irekia iritzi guztiei

Mahaiaren Bueltan asteartea, 21:30

Goiena Telebistak atek ireki nahi dizkie bailara honetan dauden elkarte, talde, gizabanako eta iritziei. Plaza bat eratu nahi du horretarako, denoi interesatzen zaizkigun gaiak mahai baten bueltan eztaba da daitezten. Helburu hori lortzeko, mahai inguru antolatu du, baina denboraldi honetan izen berria hartuko du saioak: *Mahaiaren Bueltan*. Hilean behin egingo da, hileko azken asteartean, albistegiarren ostean.

Monika Belastegi kazetari bergararrak aurkeztuko du *Mahaiaren Bueltan*. *Berrigara* aldizkarian egiten du lan Monikak eta baita GOITBren albistegian ere, Bergarako berriak-eta lantzen. Hauxe izango da telebistan aurkeztuko duen lehen programa.

Lau bat lagun izango ditu hilero, mintzakide. Saioa indartzeko, gainera, erreportaje bat eta kale galdeketa egingo dira hilero, aukeratzen den gaiaren inguruan.

Saioak ordubete inguru iraungo du. Amaiera aldera, ikusleek aukera izango dute eztabaidan parte hartzeko, telefonoz deituta. Horretarako 943 71 23 93 zenbakira deitzea besterik ez duzue.

ETXEBIZITZAK AZTERGAI

Datorren asteartean etxebizitzaren arazoa



Monika Belastegi.

eztabaidatuko da. Izan ere, Debagoienean inon baino garestiago daude etxeak. Mahaiaren bueltan honako gonbidatu hauek izango ditu Monikak: Martin Arregi, Etxebide zerbitzuko teknikaria; Jose Antonio Etxeberria, Hirigintza zinegotzia Bergarako Udalean; Jesus Markaide, Deba Garaia inmobiliariako ardurduna Bergaran; eta Jabi Rodriguez, Denontzat taldeko kidea.



ASTELEHENA - OSTIRALA

- 09:00 Egunon Arrasate eta prentsaren errepassoa.
- 09:55 Eguneko hitzorduak.
- 10:00 Igo autobusera I.
- 11:00 Albistegia.
- 11:15 Igo autobusera II.
- 12:30 Agenda, eskelak...
- 12:45 Albistegi nagusia.
- 14:00-18:00 Errepika.

ASTELEHENEAN

- 20:00 Jokoz Kanpo.
- 21:00 Draxtor.
- 22:00 In Session.

ASTEARTEAN

- 20:00 Hi bizi hadi.
- 21:00 Jakidiplost.

ASTEAZKENEAN

- 20:00 Binilo ordua.
- 21:00 KK2A.

OSTEGUNEAN

- 20:00 Ostegun-Ero.
- 21:00 Arakaten.

OSTIRALEAN

- 20:00 Planing Prest.
- 21:00 Kale Doinuak.

LARUNBATEAN

- 10:00 Bihurrikerietan.
- 11:00 Musika klasikoa.
- 12:00 Bi zoro eta zu.



Parques y Jardines

Parke eta lorategien sorkuntza.

Lorazaintzako mantenimendua orohar.

Landare-birsorkuntza hidroereintzaz.



Casa-Torre kalea. Tfnoa: (94) 681 90 82 ABADIÑO (Bizkaia)

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

ALAI GARAJEA PEUGEOT. Urarte, 12 Bergara Tel.: 943 76 22 96

Peugeot Sedan 1.6		2000	Kilometro zero	*6
Peugeot 406 1.9 SRDT		1999	Aire egokitua	*7
Peugeot 306 1.9 XSdT 3 ate		1998		*6
Jeep Grand Cherokee 2.5 TD		1997	Aire egokitua	*8
Peugeot Boxer 2.5 TD Furgoia		1996		*6
Renault 1.9 TD		1996		*6

AUTOLEYMA. Aitziturri 5. Bergara. Tel.: 943 76 09 30

Peugeot 206 XR 1.4 3 ate				*5
Peugeot 306 Diesel			AG-LD	*4
Peugeot 306 Diesel			AG-LD- 2 AIRBAG	*6
Peugeot 205 Diesel 3 ate			LD	*3
Peugeot 306 XSI			ABS- AG-LD- AIRBAG	*7

BERRIA GARAJEA. Amillaga 49 Bergara Tel.: 943 76 22 43

Citroen ZX TD 3 ate	SS-AV	1995	AG-IE-IK-IZ-KE-LD	*5
Honda Concerto 1.5i 16 V	BI-CG	1994	AG-IE-IK-IZ-KE-LD-AH	*3
Fiesta 1.1 Trip 3 ate	SS-AN	1992	IK	*2
Toledo 1.8 GT Sport	SS-AL	1992	AG-IE-IK-IZ-KE-LD-AH-ABS	*3
Mondeo RS V6	SS-BG	1999	AH-IE-IK-IZ-KE-KL-LD-LK	*7
Escort Ghia 1.8 TD	SS-BD	1998	IK-IZ-KE-LD	*5
Peugeot 309 GTX	SS-AK	1991	LD-KE-IZ-IK-AH	*3
Orion 1.6 Ghia	SS-AD	1989	IK-LD-AG-IE-IZ	*1

CHAPIME TAILERRAK. Araba Etorbidea 5 Arrasate Tel.: 943 79 45 22

Opel Vectra 1.7D GL	BI 3467 BL	1992		*3
Fiat Uno 7D SX i.e.	SS 7089 AJ	1990		*2
Opel Astra 1.7 TD GL	SS 9632 AT	1994		*4
Renault 19 1.8 TXI	SS 2850 AK	1991		*2

A: Alerioa AG: Aire girotua AH: Aleaziozko haguak AL: Alarma BA: Balbula anitza ES: Eguzki Sapaia
 IE: Ispilu elektrikoak HT: Hard top IK: Irrati-kaseta IZ: Itxigailu zentralizatua KE: Kristal-jasogailu elektrikoak
 KL: Klimatizagailua LD: Lagunduriko direkzioa LGT: Lau gurpiletako trakzioa LK: Laino-kontrako argiak
 LKA: Laino-kontrako aurreko argiak NT: Narruzko tapizeria SE: Sapai elektrikoak UAT: Urrutiko aginte tresna

*1: 300.000 PTara arte
 *2: 300.000-500.000 PTA
 *3: 500.000-750.000 PTA
 *4: 750.000-1.000.000 PTA

*5: 1.000.000-1.500.000 PTA
 *6: 1.500.000-2.000.000 PTA
 *7: 2.000.000-3.000.000 PTA
 *8: 3.000.000 PTAtik aurrera

JASO GARAJEA

Autoen konponketa orokorra



Amillaga 1, 4 pabilioia.
Bergara. Tel.: 943 76 33 00

AUTO DESGUACES BERGARA

Tel.: 943 76 35 47 (desguazekoa) • 943 79 76 33 (etxekoa)

BIGARREN ESKUKO PIEZAK
 PNEUMATIKO BERRIAK ETA ERABILITAKOAK
 GRUA ZERBITZUA

PENAKOBA



Zarugalde, 46 Lizaur arkitektoa, 7
 Tel./Faxa: 943 79 29 93 Tel.: 943 78 05 60
 ARRASATE OÑATI

MARKA ETA MODELOA	MATRIK.	URTEA	EZAUGARRIAK	PREZIOA
-------------------	---------	-------	-------------	---------

FIAT KANPAZAR C.B. Bizkaia Etorbidea, z/g Arrasate Tel.: 943 79 41 98

Fiat Punto 1.2. 3 ate		2000		*5
Fiat Punto 1.2. 3 ate		1999		*5

MECA. San Andres, 8 Arrasate Tel.: 943 71 21 67

Scenic 1.9 DTI RXE	SS-BG	1999	LD, IZ, KE, ABS (4) AIRBAG, AG	2.450.000
Honda 2.0 CRV 4X4	SS-BD	1998	LD, IZ, KE, ABS (2), AG	2.650.000
VW GOLF GTI Serie III	SS-AP	1993	LD, IZ, KE, ABS, AG	1.180.000
Ford Courier Combi 1.8 TD	SS-BF	1999	LD, AG, AIRBAG	1.275.000
Ford Courier Furgon 1.8 TD	SS-BF	1999	LD, AG, AIRBAG	725.000
Peugeot 306 Coupé XS-TD	SS-AY	1997	LD, IZ, KE, AIRBAG	1.375.000
Safrane 2.2 DT	SS-AZ	1997	LD, IZ, KE, AIRBAG CLIMET	1.690.000

OLA TAILERRAK. Olabarrena z/g. Bergara Tel.: 943 76 47 74

Opel Vectra 2.0i GT	Aukera paregabeak	Kontsultatu	Full-Equip	*3
Audi 200 4x4 Turbo			Full-Equip	*2
Renault Express mixta			Hifi	*1
Renault R-21 1.7 5 ate			Hifi	*2
Citroen XM 2.2 diesel			AG/Hifi/LD/IZ/KE	*3
Citroen BX 14 TGS			Hifi	*1


SEAT UDALAITZ. Musakola auzoa, z/g Arrasate Tel.: 943 79 18 80

Ford Fiesta 1.1 5 ate	CO 4891 AG	1991		*2
Golf 1.4. 3 P.C.L.	SS 7046 AW	1997		*4
Audi Coupe 2.3.	SS 4594 AX	1992		*4
Seat Marbella	SS 0625 AL	1992		*1

GARAJE MURILLO

Mekanika orokorra

Leizeaga 4 • Bergara
Tel.: 943 76 13 84



**SAN MARTIN
KARROZERIAK**

Autoaren konponketa orokorrean

San Juan Auzoa: Barrutitxiki pabiloak, 1
Tel.: 943 76 07 97
20570 BERGARA

Garajeko mandoen
kopiak egiten
ditugu!



Txorno
Auto-errekabioak

Ibargarai 33, behea. BERGARA
943 76 29 95

AGUSTIN

Automobilaren
karburazio eta
elektronika



Uribarri etorbidea 16.
Arrasate. 943 79 73 58



Larringan

GIDARI ESKOLA
ARRASATE ARETXABALETA

Garibai Etorbidea, 5
Tel.: 943 79 22 96
ARRASATE

Basabe Poligonoa F0-7 eraikuntza
Tel.: 943 79 64 50
ARETXABALETA

DENA AUTO

Tel.: 943 71 23 91
943 76 03 97

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

• Altzaridun etxebizitza salgai Aretxabaletan. Tel.: 943 79 28 18.

• Etxebizitza salgai Erguin auzoan. Tel.: 943 79 99 08.

• Etxebizitza salgai San Andresen. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta sotoa. Tel.: 943 79 99 26.

• Etxebizitza salgai Erguin auzoan, 70 m², berriua eta berogailuarekin. Tel.: 943 77 12 77.

• 160 m²ko etxebizitza salgai Aretxabaletan. Sukaldia prest, 2 komun, 6 logela, jangela-egongela, terraza eta balkoia. Tel.: 943 79 78 04.

• Etxebizitza salgai Santa Marinaran. 4 logela, sukalde-jangela, komuna, trastelekua, berogailu indibiduala. Altzari eta guzti. Prezio interesgarria. Tel.: 943 79 98 14. Juan, 21:00etatik aurrera.

2. Erosi

• Etxebizitza zahar bat erosiko nuke Arrasaten. Tel.: 649 86 73 05.

3. Errentan emateko

• Gela bat alokagai daukat. Tel.: 943 79 87 59.

• Bergarako erdialdean etxea alokagai. Tel.: 943 76 15 40.

• Bergaran, etxeko logelak aloka tzen ditut. Sukaldia erabiltzeko aukera. 40.000-50.000 pezeta hileko. Tel.: 943 76 15 40.

4. Errentan hartzeko

• Ikasle bat Arrasaten pisu bila. Tel.: 948 46 73 66 eta 945 46 71 24.

• Pisu behar dugu Aramaio, Aretxabaleta edo Eskoriatza inguruan. Tel.: 629 92 48 82.

• Bikote batek etxebizitza alokatuko luke Arrasaten edo inguruan. Tel.: 606 75 59 13 edo 653 72 28 94.

• Etxebizitza bila nabil Arrasaten, konpartitzeko. Presakoa. Tel.: 945 27 80 59.

5. Etxeak osatzeko

• Neska batek gela bat alokatu nahi du. Tel.: 94 440 58 78 edo 696 88 26 65.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxeak osatzeko
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Kontaktuak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



943 71 25 11

ARRASATE PRESS • Otolara Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik. Astearte eguerdia baino lehen deitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

• Lokala salgai Zarugalde kaleko 6. zenbakian. 60m² eta 22m²ko patioa. Tel.: 606 76 50 22.

14. Errentan emateko

• Lokala alokagai Erdiko kalean. 65 m², prezio interesgarria. Tel.: 943 77 00 68. Ordu-tegi komertziala.

15. Errentan hartzeko

• Lasai ikasteko lokal baten bila gabilta. Tel.: 943 79 63 60. Denis.

LANA

17. Eskaintza

• Neska prest umeak zaintzeko arratsalde. Tel.: 943 79 20 55.

• Emakume esperientziaduna etxea garbitzeko edo pertsona nagusi zein umeak zaintzeko prest. Tel.: 943 77 02 46.

• Mutil atzerritarra edozein lanetan ibiltzeko prest. Tel.: 686 66 22 71.

• Taberna batean egingo nuke lan asteburuetan. Tel.: 77 02 17 edo 617 72 47 83.

• 35 urteko emakumea prest ume-ren bat arratsalde zaintzeko. Tel.: 667 85 15 10.

18. Eskaerak

• Enpresa batek furgonetadun pertsona bat behar du garraio lanak egiteko. Tel.: 943 77 00 34 edo 943 77 13 52.

• Ile apaintzailea behar da. Tel.: 696 44 50 37.

• Dendaria behar da janari denda baterako. Esperientziaduna, ahal bada. Tel.: 943 77 00 91.

• Tabernaria behar da jatetxe-taberna batean lan egiteko. Interesatuok deitu 943 79 20 50 telefonora.

• Sukaldari bat, garbitzaile bat eta zerbitzariak, barrarako eta jangelarako behar ditu Bergarako jatetxe batek, gizon zein emakumeak. Tel.: 666 06 22 60.

• Neska euskalduna behar da dena batean arratsalde lan egiteko. Datuak helbide honetara bidali: 259 P.-Ku. Arrasate.

• Tabernaria behar da. Tel.: 943 79 83 98 edo 943 77 17 97. Arantxa.

• Tabernaria behar da Bergarako-kafetegi batean. Kontratuarekin. Tel.: 943 76 59 28.

• Emakume bat behar da etxeko lanak egiteko, goizez. Tel.: 653 71 77 97.

• Tabernan lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 686 70 31 65.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

• Eskola partikularrak emango nituzke, 1. hezkuntza edo DBHko lehenengo mailan. Tel.: 943 79 97 87. 21:00etatik aurrera.

• Heziketa Berezian lizentziadunak LH 1etik 6. mailara bitartean, laguntza eskola ematen du. Tel.: 943 79 58 83. Arratsalde deitu.

• LH edo DBHko eskola partikularrak ematen ditut. Matematikak, fisika, euskara eta abar. Euskaraz nahiz gaztelaniaz. Tel.: 943 71 46 28.

• Lizentziaduna, EGArekin, idazketa, irakurketa, euskara errefortzua

eta LHko laguntza eskolak ematen ditu. Tel.: 649 22 51 07.

21. Eskaerak

• Pertsona bat behar da, DBHko lehenengo mailan dabilen neska bati eskola partikularrak emateko. Tel.: 943 77 15 58.

• DBHko lehen mailako eskola partikularrak emango dituen pertsona bat behar da. Tel.: 943 79 83 15. 21:00etatik aurrera.

• Gestio informatikan ingeniariatza teknikoko alortatik eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 76 61 02.

• Ingeniariatza Teknikoko 1. mailako marrazki ikasgaiarako eskola partikularrak behar dira. Tel.: 943 79 37 96.

MOTORRA

23. Saldu

• Cota 348 motorra salgai. Egoera onean. Prezioa: 150.000 pta. Tel.: 677 42 58 30.

• Seat Panda salgai. Egoera onean. Tel.: 677 42 58 30.

• Hyundai Atos autoa salgai. 2 urte. 12.000 km. Tel.: 639 87 58 37.

• Opel Corsa Don Algodon autoa salgai. Egoera ezin hobean eta oso merke. ITVa pasatu berri eta Km asko egiteko prest. Tel.: 943 79 97 60.

• Honda CB-500 motorra salgai. 96ko ekainekoa. 34 zaldiko potentziara mugatua dago. Puntu estrak. Tel.: 678 08 43 67.

• Kawasaki K LX 300, 2 urtekoa salgai. Matrikula: SS-BB. Prezioa: 650.000 pezeta. Tel.: 626 00 54 33.

DENETARIK

26. Saldu

• 5 gurpil saltzen dira aluminiozko llantekin, Opel Corsa edo Opel Kadettentzat. 20.000 pta. Tel.: 943 79 93 19.

• Ordenadorea salgai, 1997. urtekoa. Ezaugarriak: Pentium 133, inprimagailua eta bozgorailuak. Egoera onean. 95.000 pta. Tel.: 676 73 40 77.

• Erabili barik dauden eskiatzeko botak salgai; zenbakia: 40. Tel.: 943 77 17 48. Gaez deitu.

• Piragua salgai, arraun eta ontzi estalkia, merkea, ia berria. Tel.: 943 79 78 36. Unai.

• GAC markako 2 bizikleta salgai, berriak, behin erabiliak, gizon eta emakumearendako. 40.000 pezeta (biak). Giltzarrapoa doan. Tel.: 943 79 65 80. 19:00 - 21:00.

• Yors-Shire txakurkumeak salgai. Tel.: 943 76 18 96.

• 90 zm.ko bi koltxo salgai. Egoera onean. Tel.: 943 79 79 14.

27. Erosi

• Txanpon zaharrak erosiko nituzke. Tel.: 639 82 27 90. Pello.

28. Trukatu

• Egoera onean dagoen Seat Panda motor batekin trukatu nahiko nuke. Tel.: 677 42 58 30.

29. Eman

• Hil eta erdiko txakurkumeak oparitzen dira. Tel.: 676 37 96 36.

30. Hartu

• Telebista zahar bat hartu edo erositeko prest. Tel.: 943 77 91 25. Jon.

31. Galdu


• Irailaren 20an, eguazteja, Erguingo Udalpe plazako eskaileretan betaurrekoak galdu nituen. Brico markakoak, berdeak. Tel.: 943 77 01 42.

• Urriaren 8an, igandean, Etxague-neko bolatoki ondoan argazki kamera eta prismatiko batzuk galdu zitzaizkigun. Aurkitu dituenak mesedez 943 79 95 50 edota 943 79 19 03 telefonora dei dezala. Eskertuko da.

HARREMANAK

37. Bestelakoak

• Berreskuratu zure osasuna energia erabiliz. Gaixotasun mota guztiak, norberarentzako tratamenduekin. Deitu inolako konpromisorik gabe. Tel.: 943 79 45 74.



weru
Ate + leihoak



ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 943 79 24 12 eta 943 79 97 95
ARRASATE



Salterain

PVC-zko ate eta
leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



Joan den domekan jaunartzeak egin ziren Mondragoen, urria-azaroa eta maiatza izaten baita horretarako garaia. Duela urte batzuk ere, halaxe izaten zen. Horren erakusle, aste honetako argazki zaharra. 1967. urteko azaroaren 19an San Joan Parrokian ateratakoa da. Ilaraka emango

ditugu neska-mutikoen izenak, ezkerretik eskumara.

Lehenengo ilarakoak hauek dira: ezezaguna, Jaime Gomez, "Mazmela", Ganboa, hurrengo biak Santa Teresako bi ahizpa dira, ondorengoak Elena Lasaga, Beatriz Arregi, Cristina Arriaran, Idoia Fernandez eta Amaia Zeziaga dira.

Bigarren ilaran: Luma

Ugarte, Victor Muguzur, hurrengo biak ezezagunak, Mertxe Arantzabal, ezezaguna, Emi Bidaburu, Rosario Beitia eta Marisol Gomez.

Hirugarren ilarakoak, berriz, ondokoak dira: Lucio Gallastegi, Valentin Arana, ezezaguna, Jose Ramon Uribarren, ezezaguna, ezezaguna, Goyi Aierbe eta Itsaso Nuin.

Goiko ilarakoak ezezagunak dira berriemailearentzat. Bestalde, begira daudenen artean azaltzen den emakume nagusia Valentin Aranaren ama da, eta buruan loretxoak dituen neskaita, berriz, Valentinen arreba.

Argazkia eta berriemailea:
Goyi Aierbe.





DISEINUA ETA
PRESTAZIOAK BATEGINIK

OPEL 

TALLERES OLA

Olabarrena auzoa z/g
Tel.: 943 76 33 44 / 45 / 46 / 47 • BERGARA

TAKOLO AUTOAK, S.L.

Zerbitzu ofiziala ARRASATEn
Araba etorbidea 3 (Eskatu pabilioia) • Tel.: 943 79 05 86

Banatzen gaituzten beste gauza batzuk daude

KAJOI



Kajoi-Ostantz. Kalitatea, ostalaritza ulertzeko modu desberdina.

lehenengo ziberkafea musutruk

www.ostantz-arrasate.com


Ostantz • Ferrerías, 12



*Aspertuta gaude!
Sukaldea zaharkituta
gelditu da.*

iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 

Ametsetako sukaldeak geurean aurkituko dituzu

